


Euskalgintzaren lana, Durangoko jaien erdigunera

Txosnek urteetako lana aitortu diote Durangoko euskalgintzari, txupinazoa jaurtitzeko ardura emanda / 22-23



HIZKUNTZA GUTXITUAK TXIKITIK HANDITZEN

Mundu zabaleko hizkuntza gutxitudun komunitateetako 18 aktibista Euskal Herrira etorri dira euskara biziberritzeko prozesua gertutik ezagutzera / 2-3

Ezkerretik eskumara, Tamara Daiana Alegre guarania, Komayari Asheninka asheninka, Samira Belyouaou tariffita, Garabide elkarteko Endika Blanco durangarra eta Saddy Duvan Cometa nasa.



Iurretarren mozorro egunagaz gozatuko dute jaietako azken txanpan / 5

Aramotz eta Anboto mendi korrikalarien topaleku izango dira asteburuan / 28



DURANGOKO SAN FAUSTO JAIK 2024 / 11-24

HOME SCHMIDT HOME
SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Urriaren 1etik 31ra

URTEURRENEKO ESKAINTZAK

%20ko DESKONTUA* altzarietan

Abadiño

www.homedesign.schmidt

** ikusi baldintzak zure Schmidt saltzalearekin parte hartzen duten dendetan



Endika Blanco iurretarra (goian ezkerrean) hizkuntza gutxituetako aktibistekin eta Garabide elkarteko kideekin. GARABIDE

"Hizkuntza gutxituek ispilu modura ikusten dute euskara"

ENDIKA BLANCO BRAVO GARABIDEKO KIDEA

Garabide elkartearen bitartekaritzagaz, mundu zabaleko hizkuntza gutxituetako 18 aktibista Euskal Herrira etorri dira euskara biziberritzeko prozesua gertutik ezagutzera

Ekaitz Herrera HIZKUNTZA GUTXITUAK Tafallako ikastolara bisita orain, Arizmendi ikastolara gero. Sakanako Guaixe komunikabidea ezagutzeko txangoa gaur eta Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea ezagutzeko sartu-irtena bihar. Berbaldi bat hemen, ikastaro bat han. Mundu zabaleko hizkuntza gutxituetako 18 aktibista Euskal Herrian daude euskara biziberritzeko prozesua gertutik ezagutzera etorrita. Eta halantxik dabilta, batetik bestera, gure proiektu hezitzaileak

eta bestelakoak ezagutzen. Garabide elkarteak dute lagun, eta, besteak beste, Endika Blanco durangarra bidelagun. Blanco erantzun die ANBOTOren galderari.

"EUSKAL JENDARTEA SENTSIBILIZATU GURA DUGU HIZKUNTZA GUTXITUEN EZAGUTZAN"

Zeintzuk dira hizkuntza gutxiak biziberritzeko programa honen ezaugarriak?

Mundu osoko hizkuntza gutxituetako aktibistek euren hizkuntzak biziberritzeko eta suspertzeko formakuntza eskaintzea da programa honen helburu nagusia. Beste helburu bat sentsibilizazio lan bat egitea da. Euskal jendartea sentsibilizatu gura dugu hizkuntza aniztasunaren inguruan eta hona datozen hizkuntza komunitate gutxituen ezagutzan. Izan ere, euskararen

egoera gutxitua ez da kasu bakarra. Hizkuntza hegemonikoei aurre egiten dieten errealtate asko dago munduan.

Euskararen biziberritze prozesua beste hizkuntza gutxitu batzuk sendotzeko ispilu modura ikusten dute aktibistek?

Bai. Garabide 2007an hasi zen proiektu hau lantzen, munduko hizkuntza komunitateetatik heldutako eskariei erantzun guran. Zelanbait esateko, hizkuntza gutxituen biziberritze lanen erreferente modura ikusten gaituzte euskaldunak. Hau da, gaur egun programa honetan esku hartzen duten hizkuntza gutxituak guk hemen orain 60 bat urte bizi izan genuen antzerako egoera batean murgilduta daude. Egoera larrian, galzorian. Eta, horrenbestez, hemen itxaropen bat ikusten dute guran. Baina ez itxaropen utopiko bat, egingarria den biziberritze prozesu bat baino.

Euskaldunak beste hizkuntza gutxituetako ispilu izateak presioa sortzen du? Ardura?

Bai. Presioa ez dakit, baina ardura eta erantzukizuna, bai. Horiek igartzen ditugu. Horregaitik ahalegintzen gara formakuntza programa hau mimo handiz antolatzen eta garatzen. Hori dela eta, euskara biziberritzeko prozesuan ditugun askotariko esperientziak erakusten dizkiegu, baina beti egiten diegu azpimarra ezaugarri batean: hemen hainbat esperientzia eta proiektu izan arren, dena ez dugu irabazita. Mezu hori helarazten diegu. Hemen ideiak hartu ditzaketela, ideia inspiragarriak, gero han bakoitzaren errealtateetan irtenbideak topatzeko. Umiltasunez eta gurea erakusteko borondate osoaz eskaintzen diegu laguntza.

Zeintzuk dira haiekin partekatzen dituzuen esperientziak?

Esparru ugariak esperientziak erakusten dizkiegu. Batetik, hizkuntza jabekuntzari loturikoak. Hezkuntza, helduen hezkuntza, hezkuntza ez-formala eta familia barruko transmisioa, adibidez. Bestetik, corpusari

loturikoak partekatzen dizkiegu. Euskararen estandarizazioa, terminologia berriaren sorreragaz zelan jokatu eta halakoak. Azken atal bat erabilerarena da. Hor kulturagintzari loturikoak, komunikazio proiektuak zein lan eremuko esperientziak aletzen ditugu, besteak beste. Hori guzti hori saio teorikoen bitartez eta erakundeetara zein elkarteetara egindako bisiten bitartez lantzen dugu. Aipaturiko guztiaz gainera, partaiderik bakoitzak duen interes partikularri erantzuten ahalegintzen gara.

Zenbat kide etorri dira?

Aurtengo edizioan hamazortzi hizkuntza aktibista etorri dira. Hamahiru hizkuntza komunitateetatik etorritako hamazortzi ekintzaile dira. Programa ekainaren hasieran hasi genuen. Ekainetik uztailean bitartean, Internet bidezko ikastaroa egin genuen eurekin, oinarrizko jakintza batzuk partekatuta. Gero, uda ostean, irailaren 20an, aktibistak hona ailegatu ziren. Urriaren 31ra arte egongo dira gure artean. Askotariko komunitateak ekartzen ahalegintzen gara, eta urterik urtera jarraitkortasun bat lortzen.

Zein ilusio eta gogo pizten zaie aktibistek hona etorritak?

Oso gogotsu etortzen dira. Han daudela, Euskal Herriaren eta euskararen biziberritzeari buruzko oinarrizko jakintza bat izaten dute. Badute gure berri. Gero, behin hona etorrita, esperientzia bertatik bertara jasota, oso gogotsu egoten dira.

Zein da hizkuntza gutxituetako kideek haien komunitate linguistikoan bizi duten egoera?

Orokorrean, egoera larria bizi dute. Galzorian dauden hizkuntzak dira. Hemen orain 50-60 urte gertatu zen moduan, biziberritze prozesu bat hasi behar izan dute. Horrenbestez, hizkuntzaren ezagutza minimotan dago. Erabilera, are eta urriagoa da. Eta hemen egoera latz horren erretratu bat egiten ahalegintzen gara, diagnostiko bat, zeri aurre egin behar diogun aztertu eta horri erremedioa ipintzeko. Zorionez, euren hizkuntza komunitateetan kontzientzia bat hartzen eta haien hizkuntzak elikatzen hasi dira azkenaldian. Hizkuntzari kendutako prestigioa bueltatzeko bidea eta familia barruko transmisioa sendotzeko bidea hasi dute.

"OROKORREAN EGOERA LARRIA BIZI DUTE, GALZORIAN DAUDEN HIZKUNTZA GUTXITUAK DIRA"

Zenbat hizkuntza hainbat mundu ikuskera

Mundu zabaletik Euskal Herrira etorritako hizkuntza gutxitudun komunitateetako lau aktibistagaz batu da ANBOTO, Garabidek Aretxabaletan duen egoitzan (Gipuzkoa). Aktibistek honako datu hauek eman dituzte euren jatorri hizkuntzetara hurbiltzeko:

Nasa Yuwe

- **Eremua:** Kolonbiako hego-mendebaldean mintzatzen da, Cauca izeneko eremuan, nahiz eta migrazio mugimenduak direla-eta Kolonbiako zazpi departamendutan dauden nasatarrek.

- **Hiztunak:** 63.000

Asheninka

- **Eremua:** Asheninka herria Peruko eta Brasilgo eremuetan banatuta dago.
- **Hiztunak:** 10.000 Brasilgo eremuan, eta 60.000 Peruko aldean.

Riftera edo tarifita

- **Eremua:** Riftera edo tarifita amazig hizkuntzetariko bat da. Maroko iparraldean berba egiten da, Rif izeneko eskualdean.
- **Hiztunak:** Rif eskualdea eta mundu zabaleko diaspora kontuan hartuta, tarifita 6 bat milioik egiten dute.

Guarania

- **Eremua:** Argentinako Corrientes eskualdean, eta Brasilgo, Paraguaiako, Uruguaiako eta Boliviako hainbat eskualdetan berba egiten da. Guaraniak dozena bat aldaera ditu. Indigenak eta indigenak ez direnak mintzatzen dira.
- **Hiztunak:** 12.000.000 inguru, aldaera guztiak kontuan hartuta.

Saddy Duvan Cometa (Nasa)

"Kolonbiako legediak aintzat hartzen ditu herrialdeko jatorrizko hizkuntzak. Konstituzioak halanbik jasotzen du, baina gero hori guzti hori ez da behar den modura betetzen, hizkuntzak biziberritzeko lana ez da behar den moduan garatzen. 2010ean, herrialde indigenen, nekazarien eta elkarleen borrokari eskerrak, Jatorrizko Hizkuntzen Legea onartu zen", azaldu du Saddy Duvan Cometak. Baina lege babes bat egon arren, hizkuntzaren prestigio soziala oso bestelakoa dela onartzen du: "Hirigune handietan nasa hizkuntza berba egiten dutenak ez dira aintzakotzat hartzen. Herrialde indigenenganako estigma indarrean dago oraindino. Eta, batzuetan, lurralde indigenetan ere sentitzen dugu presio hori, gure hizkuntza gura ez izate hori".

Nasatarren hizkuntza komunitate nagusia Toribio izeneko hirian dago. Han, Garabide elkartegaz lankidetzari hasi zutenean, nasatarrek Euskal Herriko ikastolen pareko zentroak sortu zituzten. Eta, ordutik hona, proiektu berriak hasi dituzte hizkuntzak biziberritzeko. "Hizkuntza politika bat garatzeko lankidetzari hasi genuen administrazioagaz. Hizkuntzagazko kontzientzia lantzeko bide bat izan da. laz, prozesu berriak hasi genituen. Batetik, haurreskolan erakutsi beharreko hizkuntzari dagokionez, %80 bertakoa eta %20 gaztelania izatea lortu dugu. Hizkuntza bi ondo dakizkien umearen sormena elebakarrarena baino etekingarriagoa dela ikusi dugu", azaldu du Cometak. "Orain, handitu egin da nasa ikasteko eskaria", amaitu du.



Samira Belyouaou (Riftera/Tarifita)

Belyouaou diasporan bizi den riftarra da. Alemanian bizi da, handik etorri da Euskal Herrira, baina riftera du ama hizkuntza. Amazig hizkuntzen aldaera bat da berea, Marokon berba egiten diren hiru amazig hizkuntza nagusietariko bat. "Amazig estandar bat sortzeko proiektua hor dago, egin da zeozer, baina estandar horrek hutsetik sortu berria den hizkuntza dirudi", argitu du Belyouaouk.

Hizkuntza kontinentala da amaziga, Atlantikotik Arabiara eta Mediterraneotik Niger alderaino berba egiten dena. "Horrenbestez, irtenbidea hainbat bloketan estandarizatzea izan daiteke. Izan ere, idazketagaz ere badira gorabeherak. Aldaera bakoitzak bere alfabetoa du", esan du Belyouaouk.

Kontuan hartzeko beste ezaugarri bat diaspora da. 1960ko hamarkadan, Alemaniako rifeko jende asko kontratatu zuen lanerako. Koln, Frankfurt eta Düseeldorf hirietan, adibidez, riftar komunitate zabala dago.

Eta fokua etxean ipinita, zer ikasi dezakegu euskaldunok riftarrangandik? Belyouaouk badu proposamen bat: "Tafallako ikastolara egindako bisitan ikasle batzuek esan zigutenez, edukiak euskaraz sortzen dituen influencer, youtuber eta tiktoker gutxi dago. Rifteraz, ostera, ez da hori gertatzen. Han asko ditugu. Berdin elikadura, makillaje zein entretenimendu sortzaileak".



Komayari Asheninka (Asheninka)

"Gure hizkuntza komunitatea Peru eta Brasil artean banatuta dago. Ni Brasilgo aldetik etorri naiz. Han, 1988ko eta 1998ko lege biri eskerrak, gure hizkuntzak pausoak eman ditu biziberritzeko bidean. Ikasketak ele bitan egiteko aukera dugu, eta horrek hizkuntza indarberritzeko leiho bat zabaldu digu herri indigena bakoitzari. Herriko eta departamenduko antolatzen gara. Unibertsitatean, adibidez, asheninka ikasten eta aztertzen da.

Horrela lan egiten dugu, badugu autonomia bat". Peruko asheninka hiztunek bestelako egitura bat dutela azaldu du Komayari Asheninkak.

"Hemen bizitzen nabilen esperientzia oso inportantea eta aberasgarria da. Euskararen berreskurapenari buruzko informazio asko eta ezagutza handia jasotzen nabil, eta ikasitakoa asheninkara eramanez gura nuke. Horixe da nire ametsa. Hizkuntzalaria naizen neurrian, hori bilatzen dut, nire hizkuntzari ekarpen bat egitea. Asheninka hiztegi bat sortu gura dut, eta gramatika arautzeko oinarriak landu. Peruko kideek badute landuriko gramatika bat, baina Brasilgoak garenok egiteko dugu lan hori. Beharizan hori dugu, eta nire ametsa hori betetzea da. Egunotan, hemen nagoela, amets hori betetzen nabilela esango nuke", esan du Asheninkak. Bestalde, beharrezkotzat jo du bere hizkuntzari lekua, prestigioa eta oinarri sendoa ematea.



Tamara Daiana Alegre (Guarania)

"Argentinako Corrientes eskualdekoa naiz. Gure zonaldean, guaraniak ezabaketa historiko bat izan du. Jatorrizko herriak sortu zituzten familia guaraniarrak historiatik ezabatu zituzten, eta horregaz batera, jesuitak bota zituzten. Horrenbestez, proiektu kolonialean berba egiten zen hizkuntzari buruzko informazio gutxi dugu, guaranieraren idazketan jesuitak eragin handia izan zuten eta", azaldu du Tamara Daiana Alegrek. "20 urte dira bere eskualdeko legediak guaraniera aintzat hartzen duela, baina gero hori guzti hori ez da behar den moduan betetzen. Gainera, lege babes heldu baino lehenago, guaraniera txarto ikusia eta desprestigiatua zegoen", argitu du Alegrek. "Hori dela eta, azken hamar urteotan autogestioan oinarrituriko esperientziak sortu eta hizkuntza biziberritzeko prozesu bat hasi dugu", azaldu du. "Jendea alfabetatzen eta hizkuntza erakusten hasi da. Orain arte, gaztelaniaz bakarrik berba egitea maila sozialez igotzeko modua zen, edo horrela ulertu izan da. Orain, ostera, jendea hizkuntza bi berba egitearen onurak ikusten hasi da. Hizkuntzari balioa ematen hasi gara", gaineratu du. Alegrek etxean bertan igarri du hori: "Guarania da nire hizkuntza, nahiz eta ikasi dudana bigarren hizkuntza izan. Amak ulertzen zuen, nahiz eta barbarik egiteko gai ez izan. Orain elebiduna naiz eta harro nago. Hizkuntzari balioa bueltatzeko momentu horretan gaude".



Delituak eta istripuak gutxitu egin dira Durangon

2024ko bigarren lauhilekoan udaltzaingoak baturiko datuak jakinarazi dituzte udal ordezkariak. Datuen arabera, "segurtasuna hobetu" egin da. Udaltzainek biolentzia matxistagaz loturiko delituetarako formakuntza jasoko dutela aurreratu dute

A.B. DURANGO

2024ko bigarren lauhilekoan, Durangon "beheranzko joera" izan da delitu eta istripuei dagokienez. Udaltzaingoak baturiko datuek segurtasuna "nabarmen hobetu" dela erakusten dutela esan du Mireia Elkororibe alkateak prentsaurrekoan, eta gaineratu du herritarren laguntza "funtsezkoa" izan dela. Hala ere, herritarrengandik jasotako keak nabarmen igo dira; urtarriletik abuztura bitartean, 432 jaso dituzte. "Horrek erakusten du hainbat arlotan lanean jarraitu behar dugula", esan du Josune Escota Antolakuntza batzordeburuak. Gaineratu du udaltzainek biolentzia matxistagaz loturiko delituetarako formakuntza jasoko dutela.

Igor Zenarruzabeitia udaltzainburuak emandako datuen arabera, udaltzaingoak 2.164 esku hartze egin ditu urteko bigarren lauhilekoan. Argitu duenez, 100 salaketa ipini dira eta bide se-



Durangoko udal ordezkariak prentsaurrekoan.

gurtasunagaz loturiko delituek "nabarmen" egin dute behera. Alkoholemiagaz eta droga-kontsumoagaz loturiko arau-haustekak ere jaitsi dira; baita ebasaketa (38) eta lapurreta (9) kopurua ere. Kaleko delituak egonkor mantendu dira. Iruzur kasuak (6) ere asko gutxitu dira.

Sanfaustoei begira

Sanfausto jaiei begira, errelebo bakoitzean 12 udaltzain egongo dira, eta Ertzaintzagaz elkarlanean arituko direla nabarmendu dute. Escotak esan du udal teknikariekien lanean dabilzala eraso sexualen aurrean zelan jokatu jakiteko.

Durangoko Udal Euskaltegiak eraikin berrian hasi du ikasturtea

Murueta Torren du aterpe berria Udal Euskaltegiak; ikasturte berrirako 245 pertsonak eman dute izena



Euskaltegiko eta udaleko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

A.B. DURANGO

Durangoko Udal Euskaltegia Murueta Torre eraikinean dago, irailaren 2tik. Euskara azterketa ofizialak prestatzeko udako ikastaro trinkoekin ekin zion jardunari, 45 ikaslerekin. Asteon, 2024-2025 ikasturte berria abiatu du. Guztira, 245 ikaslek eman dute izena, iaz baino 70 gehiagok. Oraindik izena eman daiteke.

Paule Sanchez Euskara zinegotzi eta Euskaltegiko lehendakariaren berbetan, "instalazio berrituen irekierak aro berri bat markatzen du euskaltegiarentzat. Eraikin historiko hau kontu handiz egokitu da, modernoa eta irisgarria izateko, eta, euskara eta euskal kultura sustatzeko dugun konpromiso irmoa islatzen du". 1660ko eraikina birmoldatzeko proiektua 651.800 euroko inbertsio eskatu du.



Ospakizuneko irudi bat San Agustinen. DENDAK BAI ELKARTEA

40 urteko ibilbidea ospatu du Dendak Bai merkatari elkarteak

Alex Palacios Dendak Bai-ko presidentek urteetako "lorpen garrantzitsuak" azpimarratu zituen ekitaldian

A.B. DURANGO

Dendak Bai merkatari elkarteak sortu zela 40 urte bete dira, eta urteurren borobil hori ospatzeko ekitaldi berezia egin zuten irailaren 27an. Durangoko San Agustin kulturgunean izandako ospakizunean 150 lagun inguru elkartu ziren. Bazkideak, euren lagun eta senideak, eta, Durangoko eta Iurretako udal ordezkariak izan ziren. Alex Palacios Dendak Bai merkatari elkartearen presidentek urteetako lorpen garrantzitsuak gogoratu zituen.

Durango eta inguruko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbi-

tzetan, "funtsezko" lana bete du Dendak Bai elkarteak, "azken lau hamarkadetan tokiko enpresa-ehuna indartuz", helarazitako oharrean azaldu dutenez. Hartara, etorkizunari begira, herriko merkataritzaren inbertsioa indartuko duten ekimen eta proiektu berri eta berritzaileak bultzatzen jarraituko dutela nabarmendu dute, "etorkizunari baikor begiratzeko eta sektorearen barruan lankidetzaren sustatuz". Guillermo Oarbeaskoari oparia eman zioten, elkartearen sorreran, eta gero presidente moduan, egindako lana eskertzeko.

Madagaskarrera betaurrekoak bidaltzeko kanpaina, Durangon

Durangoko Udalak Grupo Baobab elkarteak bultzatutako 'Egin zaitetz ikusgai' kanpainagaz bat egin du

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak Grupo Baobab elkarteak bultzatutako 'Egin zaitetz ikusgai' kanpaina berria babestu du, aurreko kanpainak herrian izan zuen arrakasta ikusita. Hartara, eguzkitako betaurrekoak eta graduatuak batuko dituzte Madagaskarrera bidaltzeko. Urtarrilaren 31ra bitartean batuko dituzte betaurrekoak, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren alloan, Udaltzaingoaren alloan, eta adinekoen egoitzako kafetegian egokitutako biltze-guneetan. Mikel Portok

bultzatutako kanpaina da, Grupo Baobab elkartegaz lankidetzan.

Grupo Baobab elkarteak hamar urtetik gora daramatza eskolako materiala eta betaurrekoak Afrikako hainbat herrialdetara bidaltzen. Herrialde haietako komunitateekin lan egiten dute hainbat arlotan (hezkuntza, osasuna, nekazaritza eta abeltzaintza). Urte hasieran, Senegalera 14 kaxa bete betaurreko bidali zituzten. 'Egin Zaitetz Ikusgai' kanpainak parte-hartze handia izan du Durangon, udal ardura-dunen berbetan.



Irudimena astindu eta mozorroagaz irtengo dira zapatuan. (ARXIBOKO IRUDIA)

Iurretarrak azken egunak dituzte sanmigelekin gozatzeko

Jai Batzordeak bertso jaialdia eta kontzertuak antolatatu ditu gaurko; zapatuan, Mozorro Eguna ospatuko dute

A.B. IURRETA

Iurretarrak sanmigeletako azken txanpan sartu dira gaur. Denak emanda aprobetxatzeko egunak dituzte aurretik, eta gutxiak huts egingo diote jaiak gozatzeko aukerari. Gaur tortilla eta pintxo txapelketak egingo dituzte, eta mariatxi doinuek bertso errime emango diete lekukoa. Aurten ere, bertsozaleek lepo beteko dute Kepa Arroitauregi frontoia. Zinez eta Raimundo El Canastero taldeek berotuko dute gau giroa.

Zapatuan Mozorro Eguna ospatuko dute eta herriko kaleek

Oktoberfest jaialdiaren itxura hartuko dute. Jai Batzordeak parte hartzeko gonbita egin diete denei. Iurretarrak mozorroa jantzita batuko dira paella txapelketan, eta baita herri bazkarian ere. Gau giroa alaitzeko, Luhartz plaza taldea gonbidatu dute.

Nekazaritza azoka

Domekan, XXIV. Nekazaritza eta Artisautza Azokagaz hasiko da eguna. Dantzari eta agintariak hutsik egin bari egingo dute kalejira, Montoitik plazara. Eta jaiak agurtzeko, herri afaria egingo dute.

Mediku faltaren arazoa ez da konpondu Berrizen

EAJ udal taldeak adierazi du Osakidetzak urriaren 1erako iragarritako bigarren medikua ez dela lanean hasi. "Egun horretan ez zen medikurik egon"

J.D./M.Z. BERRIZ / ZALDIBAR

Osakidetzak Berrizko osasun zentroa bigarren mediku bat batuko zela iragarri zien Berrizko eta Garaiko alkateei eurekin egindako batzar batean, eta zehaztu zien mediku hori urriaren 1ean hasiko zela lanean. Baina ez da horrelakorik gertatu, eta Berrizko EAJ udal taldeak bere "ondoeza" adierazi du ohar baten bitartez. "Osakidetzaren komunikatuaren ondoren, ulerter genuen bigarren postua betetzeko mediku bat urriaren 1ean lanean hastea ziurtatuta zegoela. Eta hori espero genuen, baina ez da horrela izan. Aitzitik, urriaren 1ean ez zen medikurik egon osasun zentroan, ez bat, ez bi, ez hiru", salatu du.

Zaldibarren, konpontzeko bidean

Zaldibarren, ostera, mediku faltaren arazoa konpontzeko bidean da. Osakidetzak orain aste batzuk iragarri zuen moduan, aste honetan, irailaren 30ean hain zuzen ere, mediku bat herritarrek artatzen hasi zen Zaldibarko



Berrizko mediku faltaren arazoa konpontzeko herrian egindako mobilizazio bat.

ambulatorioan. Horrez gainera, Osakidetzak informazio berri bat helarazi dio asteon udalari, urriaren 23tik aurrera mediku bi egongo direla kontsultategian. "Batetik, Osakidetzak mediku faltaren arazoa konpontzeko

egindako lana eta borondatea eskertu gura ditugu. Bestetik, azken aste hauetan osasungintza publikoagatik kezka helarazi eta kaleratu dituzten herritarrek ere eskertu gura ditugu", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak.

Euskararen erabilera indartzeko, AROA plana hasi dute Iurretan

Udalak datozen bost urteetarako bide-orria diseinatu gura du, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak AROA plana hasiko du, herrian euskararen erabilera indartzeko. Horretarako, udalak hurrengo bost urteetarako bide-orria diseinatu gura du, herritarrekin eta eragileekin elkarlanean. Herrian euskararen komunitatea indartzea dute helburu, udal ardura-dunek azaldu dutenez.

Hasteko, herrian euskararen egoera zein den aztertuko du udalak. Horretarako, herritar eta eragileengana jo dute, ohar batean jakinarazi dutenez. Har-



Iurretako herrigunea.

tara, euskararen aurrean dauden jarrera eta motibazioei buruz ez ezik, euskararen erabilerrari eta elkarreraginari buruzko informazioa batzeko galdetegi bat zabaldu zuten joan zen irailan.

Bina orduko hiru saio

Diagnostikoa osatu ondoren, bina orduko hiru saio egingo dituzte herritarrekin eta eragileekin AROA plana diseinatzeko. Saioak urriaren 30ean eta azaroaren 13an eta 20an egingo dituzte. Oskar Koka alkateak herritar zein eragile guztiak parte hartzera deitu ditu: "Euskaraz bizi direnei, euskara eza gutzen dutenei zein euskarara hurbiltzeko daudenei parte hartzera dei egiten diegu, guztiok garelako beharrezkoak euskararen komunitatea sendotzeko".

Elixosteko lanen lehenengo fasea lizitatu du udalak

A.B. OTXANDIO

Otxandio Udalak lehenengo pausoa eman du Sorginestrada, Udaletxe eta Elixoste kaleak eraberritu eta hiritartzeko proiektua gauzatzeko. Lanak zatika garatuko dira, eta udalak lehenengo faseko lanak —Sorginestrada eta zine zaharreko orubetik Ospital kaleraino— lizitatu ditu. Ekin Eraiketa enpresak lau hileko epea izango du lanak amaitzeko. Jaurilaritzak gazteentzako 10 etxe eraikiko ditu zine zaharreko orubean. Eraikinaren beheko solairua udalaren eskuera geratuko da, etorkizunean ambulatorio berria egiteko. Administrazio biek sinatuta dute hitzarmena.

Zapatuan aniztasun eguna ospatuko dute Zaldibarren

Maialen Zuazubiskar ZALDIBAR

Bihar, urriak 5, zaldibartarrek gorazarre egingo diote, zazpigarrenez, hainbat jatorritako zaldibartarrek herriari egiten dioten ekarpen kulturalari.

Zaldibarko Jendeak elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du horretarako. 13:00etan hasiera ekitaldia egingo dute, eta herriko hainbat elkartetako kideek parte hartuko dute bertan: txalapartariak, abesbatzek, dantzariak eta abeslariak, besteak beste. Ondoren, 13:30ean, munduko janariak lelopean, udaletxeko plazara doazen lagunek hainbat herrialdetako jakiak dastatzeko aukera izango dute.

Sei proposamen igaro dira 2. fasera Elorrion

Udal talde teknikoak aztertu eta gero, 2025eko aurrekontu parte hartzaileen proposamen zerrendatik sei pasatu dute lehenengo fasea, eta elorriarrek horien artean aukeratu beharko dute; urriaren 18ra arteko epea izango dute horretarako

A. M. ELORRIO

Elorrioko 2025eko aurrekontu parte hartzaileen prozesua bigarren fasean murgildu da. Jasotako proposamenen artean, udal talde teknikoak sei proiektu zerrenda egin du. Hauek dira aukera posibleak: bainu publikoak ipintzea Esteibarlandan, musika eskolako eraikinean hobekuntzak egitea, Elizaldeko azpiegiturak hobetzea, San Joseko txintxaunak berriztu eta eremua atontzea, Ibarrako espaloiaren konponketaren lehenengo fasea egitea, eta Aldatsekua-ko frontoia eta inguruak egokitzeta. Elorriarrek aste honetan euskarriak jasoko dituztela azaldu du udalak, eta formularioa udaletxeko, edo Iturri kultur etxeko postontzietan utzi dezaketela, urriaren 18ra bitartean. Internet bidez ere eman daiteke botoa, www.elorrio.eus webgunean (kasu honetan, urriaren 20ra arte). Hamasei urtetik gorako elorriarrek (Elorrion errol-



Esteibarlanda ingurua.

datuta daudenak) ere parte hartu ahal izango dute, boto bakarra emanez prozesu osoan. Ekainean egin zuten lehenengo prozesuko lehenengo fasea. Guztira, 185 lagunek parte hartu zuten, eta 301 proposamen batu zituzten.

Parte hartzea sustatuz

Herritarren parte hartzea sustatzeko, udalak hainbat ekintza iragarri du. Adibidez, urriaren 8an informazio karpa bat egingo da merkatuan, eta 9an txokolatada bat egingo dute Aldatsekua jubilatuen etxean.



Elorrioren kokapen geografikoaren garrantzia aztertuko dute. O.E.J

Europako Ondare Jardunaldiak Elorriora helduko dira

Gerediagak berbaldi bi antolatu ditu Europako Ondare jardunaldien harira; lehenengoa urriaren 8an izango da

A. M. ELORRIO

Europako Ondare Jardunaldietan "bideak" izango dira protagonista. Elorrion berbaldi bi emango dituzte. Lehenengoa Amaia Basterretxea historialariak emango du, datorren martitzenean, hilak 8. Basterretxeak Durangaldean iraganean zeuden bideak ikertu ditu, eta Elorriok kokapenagaitik historian izan duen garrantzia azalduko du. "Bertako lehenengo populazioak auzoetan sortu ziren: Gazetan, Mendrakan, Leizen... Gero San Agustin Etxebarriarantz joan ziren, eta, ondoren, gaur egun

ezagutzen dugun erdigunera. Aldi berean, bideak garatzen joan ziren. Gipuzkoatik zetozenek Elorrio zeharkatu behar zuten, eta hori politikoki ulertzea komeni da; hau da, garai bakoitzean zein lurralderen barruan zegoen", argitu du Basterretxeak. Bigarren berbaldia Mikel Diegok emango du. Elorriotik erbestera joan ziren 33 haur identifikatu ditu Diegok, Frantziara eta Britainia Handira joandakoak gehienak, eta urte gogor horiek gogoratuko ditu. Berbaldi biak Iturri kultur etxean izango dira, 18:30ean.

Zornotzako Euskal Jaia ospatuko dute zapatuan

Udalaren laguntzagaz, Zornotzako hainbat kultur talde eta eragilek egun osoko egitaraua prestatu dute



lazko Euskal Jaiaren irudi bat.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Euskal Jaia egingo dute zapatuan, hilak 5, herriko hainbat eragilek antolatuta. 11:30ean hasita, parte hartzaileek kantaren, musikaren eta dantzaren bitartez alaituko dute herria. Horiez gainera, Eta Abar bertso eskolako kideek bertsoan egingo dute, herriko plazan, 12:15ean, eta euren ondoren hainbat ikastetxetako ikasleak dantzan eta kantuan arituko dira. Jarraian, txaranga doinuak, Zornotzako Musika Banda eta Zornotzan Kantuzeko kideen emanaldia egingo dira aukeran herrian zehar. 15:00 inguruan geldialdia egingo dute, paella erraldoia jan eta indarra berreskuratzeko. Ondoren, bingo musikatua eta umeentzako herri kirolak egingo dira. Gauez, Zutik erromeria egingo da.

Pantailen erabilerari buruzko berbaldiak Berrizen

Miren Ros adituak emango ditu tailerrak; urriaren 10ean eta 22an izango dira hurrengo solasaldiak

A. M. BERRIZ

Boladaka izaten ari da. Familiek geroago eta kezka handiagoa dute haur eta nerabeek mugikorraren eta gailu digitalen erabileraren inguruan. Hori dela eta, Berrioz guraso elkar-teak eta Berrizko Udalak hainbat tailer antolatu dute elkar-lanean. Berbaldi horien helburua gailuen erabilera kudeatzen laguntzea da. Miren Ros adituak emango ditu tailerrak, eta bertan ideia praktikoak ere martxan ipintzeko asmoa egingo dela azaldu dute antolatzaileek. "Haus-

narketarako informazioa eskaini, eta praktika onak zeintzuk izan daitezkeen azalduko dute, familiek zer egin dezaketen ikusteko", gehitu dute antolatzaileek. Urriaren 10ean eta 22an, Lehen Hezkuntzako etapako gurasoentzat izango dira saioak, 17:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Saioak euskaraz izango dira; hala ere, beharrezkoa izanez gero, itzulpen zerbitzua ere emango dute.

Urriaren 3an, Haur Hezkuntzako familiei zuzenduriko saioa egin zuten.



DOHAINIK DA!
EMAN IZENA

BERBALAGUN

ZURE NEURRIRA
ZUGANDIK HURBIL
LAGUNARTEAN
DOHAINIK

EUSKARA **ZU** ZARA

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

MINTZATALDEAK

Praktikatu euskaraz giro atseginean, zuk erabakiko duzu noiz eta nola.

GURASOLAGUN

Helduak eta haurrak beste familiekin euskaraz hitz egiteko tailerrak eta jolasak.

EKINTZAK

Hamaika aukera: tailerrak, txangoak, emanaldiak, mintzodromoak...

XEDE-TALDEAK

Hitanoa eta euskalkiak, irakurzale-klubak, mendilagunak, online taldeak...

ABANTAILAK

Hilero-hilero opari kutxen zozketak eta harpidetzetan deskontuak.

Berba lagun 639 400 786 

praktikatu.eus/blog/durangaldea
durangaldea@aek.eus

Sustatzaileak



Babesleak



praktikatu



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko
1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko produktuen otzara.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Saltokiek bonuen kanpainara atxikitzeke aukera dute Abadiñon

Saltokiek urriaren 15era arte dute aukera kanpainara atxikitzeke. Bonuen kanpaina azaroan hasiko da



Udalak merkatariegaz egindako batzar bateko irudia.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Aurtengo erosketa bonuen kanpaina azaroan ipiniko dute mar txan Abadiñon. Baina, horren aurretik, komertzioen txanda izango da, saltokiek kanpainagaz bat egiteko momentua. Urriaren 15era arte izango dute kanpainara atxikitzeke aukera.

Udaletik jakinarazi dutenez, herriko dendekin elkarlanean lan egin dute aurtengo erosketa bonuen kanpainarako. "Kanpainak helburu nagusi bi ditu; alde batetik, tokiko merkataritza babesten du, establezimenduen arteko berdintasuna eta ekitatea bermatuz, eta, bestetik, kanpainak osagai sozial garrantzitsua du, abadiñarrik ahulenei laguntzera bideratuta dagoelako, bonuen onurak jaso ditzaten", adierazi du Edurne Maguregi sustapen ekonomikoko zinegotziak.

Bederatzi ikus-entzunezko zinema ikusezinaren barruan

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 'Film Sozialak' jaialdia Abadiñon izango da, Errotan, urriaren 4an eta 11n

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Bilboko 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak geldialdi bi egingo ditu urrian Abadiñon. Ikus-entzunezkoen proiektzioak Errota Kultur Etxean izango dira. Hauetxek hain zuzen

ere: *Write my name, Zaintzen duten emakume baserritarrak, La culpable, Puzzleak, Will My Parents Come to See me, Retour au Cinéma Vox, Europa, Eskuen soinua eta Mother Suriname.* Lehenengo seiak urriaren 4an

izango dira, eta gainerakoak hilaren 11n. Emanaldi biak 19:00etan hasiko dira.

"Abadiño gai sozialekin konprometituta dago. Urte osoan berbaldi eta emanaldi interesgarriri asko izaten dugu eta plazera da Zinema Ikusezinaren emanaldiak bertan jasotzea. Errealitate guztiak dira garrantzitsuak, are garrantzitsuagoak ikusezinak direnak, eta, beraz, garrantzitsua da euren fokua edukitzea eta jendearengana hurreratzeta", esan du Monika Iglesias zinegotziak.

Bihar jokatu dute Mallabiko Frontenis Ligako finala

Txapelketan 18 parte hartzaile lehiatu dira eta horietatik zortzi heldu dira azken jardunaldira. 10:00etan hasiko da

M.Z. MALLABIA

Hiru jardunaldiren ondoren, zapatu honetan, urriak 5, jokatu da Mallabiko Frontenis Ligako finala. Mallabia Kirol Elkarteak antolatu duen txapelketan hamazortzi lagunek parte hartu dute eta horietatik zortzi heldu dira azken jardunaldira. Hauek izango dira jardunaldi honetako partiduak: lehenengo partiduan Endika Romero eta Mikel Urrutia elkarren aurka arituko dira, bigarrenean Xabier Lezeta Iker Egiaren aurka, hirugarrenean

Jon Gandiaga Markel Bravoren aurka, eta laugarrenean Andoni Aldape Mikel Rodriguezen kontra.

Partidu bakoitzeko irabazlea finalerdietara pasatuko da, eta, antolatzaileek azaldu dutenez, partiduak honela banatuko dituzte: finalurreko batean, lehenengo eta bigarren txandako irabazleak elkarren aurka arituko dira; eta bestean, hirugarren eta laugarren txandakoak. Partidu bietako irabazleek 12:35 inguruan jokatu dute finala.

Larrabetzura asteburu pasa Katalamixonen eskutik, urri amaieran

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Katalamixon Aisialdi Elkarteak Larrabetzura asteburu pasa antolatu du urriko azken astebururako. Data bi ipini dituzte. Bata urriaren 25etik 26ra da eta DBH1 eta DBH2koak joango dira; bigarren asteburu pasa DBH3 eta DBH4koentzat izango da, urriaren 26tik 27ra. Asteburu pasaren helburua sexologia prestakuntza bat jaso eta urteko ekintzak gazteekin zehaztea izango da. Larrabetzura joan gura duten gazteek urriaren 9ra arte dute aukera izena emateko, katalamixonekintza@gmail.com helbidera idatzita.

Euskadiko Artzain Txakur txapelketa, Mañarian

Mañariak arraza libreko artzain txakurren Euskadiko txapelketa hartuko du domeka goizean. Bizkaiko eta Gipuzkoako txapelketetan sailkaturiko zortzi txakur izango dira lanean; tartean, iazko txapeldun Jon Olivares eta Bixi txakurra

Joseba Derteano MAÑARIA

Artzainen eta artzain txakurren mundua gustuko duenak beste hitzordu bat izango du asteburuan, Mañarian. Kasu honetan, arraza libreko artzain txakurren 26. Euskadiko Txapelketa antolatuko du Artxate elkarteak Mañarian. Txapelketa 11:00etan hasiko da, Tellerixako landan.

Artxate euskal artzainez osaturiko elkarte da. 1998an sortu zen, eta, harrezkero, askotariko artzain txakur lehiaketak antolatzen ditu urtero.

Zortzi lehiakide

Mañarian zortzi lehiakide arituko dira Euskadiko txapelaren



Lemoan jokaturiko Bizkaiko txapelketako sari banaketa. ARTXATE

bila: lau bizkaitar eta lau gipuzkoar, hain zuzen ere. Bizkaitar bat Durangaldekoa da, gainera: Inaxio Irakulis etxanoarra, Beltz txakurragaz. Gainerako hiru bizkaitarrak honako hauek dira: Igor Elordi barinagarra Lagun txakurragaz, Mikel Pagazartundua lemoarra Lay txakurragaz, eta Jon Olivares zeanuritarra Bizi txakurragaz. Denak Bizkaiko txapelketatik sailkatu dira. Txapelketa hau Lemoan jokatu zen, uztailean, eta etxeko artzainak jantzi zuen txapela, Mikel Pagazartundua. Oraindino Euskadiko txapelduna dena ere talde honetan dago: Jon Olivares. Zeanuritarra txapela berriro irabazten ahaleginduko da.

Gipuzkoako txapelketa Zestoan jokatu zen, irail hasieran, eta honako artzainak eta artzain txakurrak sailkatu ziren: Antzuolako Xabi Gastañaga-Sandy (Gipuzkoako txapelduna), Antzuolako Javier Gastañaga-Cool, Aizarnazabalgo Manuel Gorriti-Izar eta Matxinbentako Pello Seguroa-Kai.

Epaile lanetan Mikel Garate eta Bittor Bengoetxea arituko dira.

Hontza museora bisita gidatua, Ondare Jardunaldien barruan

J.D. MAÑARIA

Europako Ondare Jardunaldien barruan, Hontza Museora bisita gidatua egongo da urriaren 18ko bariku goizean. Animalien jatorriari eta kantitateari dagokienez, antolatzaileek amu modura darabiltzate museoko aniztasuna eta aberastasuna bisita gidatuetako azalpenetan. "Gauza jakina da animalia-espezie askok milaka kilometro egiten dituztela elikagai bila; batzuek bizirik irauteko, eta beste batzuek ugaltzeko. Hala ere, bidaiarik interesgarriena 46.500 animaliak, landarek, onddok, mineralek eta fosilek baino gehiagok egin dute, urrutiko kontinenteetatik etorrita, hala nola Australiatik, Ameriketako Estatu Batuetatik, Hego Amerikatik, Asiatatik edo Saharako harea urrunetatik ere, Hontza Museoko bilduman amaitzeko", esan zuten.

Izen ematea 94 621 65 55 telefonoan eta info@hontzamuseoa.eus helbidean egin daitekeela azaldu dute.



Apatako pilotalekuan izango da.

Atxondoko Udala Arrazolako auzotarrekin batuko da

Apatako eta Axpeko auzo batzarren ondoren, Arrazolako falta da; urriaren 7an egingo dute

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak hainbat auzo batzar egin du azken asteetan, baina oraindino bat falta da. Datorren astelehenean, 19:00etan, Arrazolako bizilagunekin batu dira Arrazolako ludotekan. Bertan, Arrazolari dagozkion

hainbat gai jorratuko dituzte, eta herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izango dute. Aurretik, udal ordezkariak Axpeko eta Apatako bizilagunekin batu dira, eta udal arduradunek azaldu dute oso pozik daudela batzarrek izandako harreragaz.

Garaiko basoetatik ibilaldia antolatu dute domekarako

Maialen Zuazubiskar GARAI

Udazken Koloreak lelopean, Trumoitte Kultur Elkarteak egitaraua antolatu du urri eta azarorako. Lehenengo ekintza domeka honetan izango da, urriak 6. Herri inguruko basoetatik ibilaldira bat egin eta denen artean gaztainak batzea izango da domekako ibilaldiaren hel-

burua. Elkarteko kideek 10:30ean ipini dute ordua, plazan.

Egitarauko hurrengo ekintza ere gaztainak batzekoa izango da, azaroaren 10ean. Hau ere 10:30ean izango da eta plazan bertan elkartuko dira.

Egitarauari amaiera eman eta denen artean arratsalde polit bat pasatzeko asmoz, azaroaren 16an Gaztainerre Eguna izango dute. 17:00etan batu dira, frontoian. Umeentzako jolasak eta gaztaina erreteak izango dituzte bertan.

Bingo umoretsua Apatan, Nagusien Eguna ospatzeko

J.D. ATXONDO

Martitzena Nagusien Nazioarteko Eguna izan zen eta egun horri lotuta bingo umoretsu bat antolatu dute. Gaur izango da, 18:30ean, Apatako frontoian. Haur, gazte, heldu eta nagusiei zuzenduriko ekimena da eta Atxondoko Kultura Mahaiaren, udalaren eta Anbotoko Dama Nagusien Elkartearen artean antolatu dute.



Herritarrek Eneritz Agirre alkatearen azalpenei adi, Apatako auzo batzarrean.

Ipuin kontaketa saioa Izurtzan, Lur Usabiagaz

J.D. IZURTZA

Opor aurretik egindako moduan, ikasturte berriagaz batera Izurtzako Udala askotariko ekimenak antolatzen hasi da erabilera anitzeko aretoan. Horren erakusgarri da gaur barikua 17:30ean egongo den ipuin kontaketa musikatua: *Koloretako liburuen zaporea*, Lur Usabiaga ipuin kontalariaren eskutik. Bost ur-

retetik gorakoei zuzenduriko saioa da eta bertan eskutik doaz ipuinak eta abestiak, istorioak eta musika. Gorritxu mantalgorriaren eskutik, ondo pasatzeko aukera izango da, hainbat haur kanta eta erritmogaz jolastu bitartean.

Lur Usabiagak beste ipuin kontaketa saio bat egingo du azaroan Izurtzako erabilera anitzeko aretoan: *Munstro bat liburutegian*. Ipuin kontaketa saio hau azaroaren 22ko bariku arratsaldean izango da.

Berbalagunen ikasturteko lehenengo mendilagun irteera,

Eribe mendira izango da irteera. 09:00etan San Rokeko aparkalekuan batuko dira, eta 09:45ean Elosun

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA Durangaldeko Berbalagunek 2024-2025 ikasturteko lehenengo mendilagun irteera antolatu du biharko, urriak 5.

Antolatzailerek jakinarazi dutez, Araban dagoen Eribe

mendia (696 metro) igoko dute, zailtasun maila errezeko mendia. Ibilbidea zirkularra izango da, 12 kilometroko luzera izango du, 265 metroko desnibela, eta 3 ordu eta 30 minutuan egiteko asmoa dute. Ibilbidean zehar,

gerra garaiko arrastoak ikusteko aukera egongo dela jakinarazi dute: lubakiak eta bunkerrak, besteak beste.

Denak batzeko, hitzordu bi ipini dituzte. Bata 09:00etan izango da, San Rokeko aparkalekuan (Durango). Bestea 09:45ean, Elosun.

Irteeran parte hartzeko, beharrezkoa izango da izena ematea, 639 400 786 telefono zenbakira idatzita. Bertan zehaztu behar da Durangoko edo Elosuko irteerara joango diren.



Aurreko ekintza bateko argazkia.

POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN
EH-BILDU

Laster txupinazoa

Durangoko jaiak ate joka ditugun honetan, nostalgia apur bat. Akortatzen naiz txosnetan egin nuen lehenengo turnoaz, kañero-ko bits kontrolaezinaz, tragoa ordaindu nahi ez zuen "lagunaz", Pinondoko lokatzaz eta kontua kalkulatzeko prezio biderkatuen taulaz (garai hartan zurittoa 70 zentimoan zegoen eta denok dakigu zazpiko taula zailena dela).

Akordatzen naiz asko entseatu gabe oholza gainera kontzertu bat jotzera igo ziren lagunez, karpako karaokeaz, gazte eguneko sagardo epelaz, irabazi ez genuen tortilla txapelketaz eta paella egunera berandu iritsi eta tripa betetzeko Intxaurreko paellan infiltratzeaz. Akordatzen naiz erreka jaitsierako giroaz, lehenengoz jantzi nuen Ourdaybiko neopreno umelaz eta hurrengo eguneko katarroaz.

Denok ditugu jaietako bizipen eta anekdotak, horietako asko elkarte eta eragileek egindako lanaren ondorioz antolatzen diren ekintzetakoak dira. Durangon, beste herri askotan bezala, badago ohitura jaien parte aktibo izateko, ekintza eta guneak antolatzeko, zoritxarrez ez dute askotan merezi duten aitortza jasotzen. Nire ustez, udalari badagokio lan hau erraztea eta udal ordezkariok badagokigu lan hau eskertzea. Asteon kargua hartzean Mexikoko presidentek esan duen bezala, "amor con amor se paga"; beraz, eskerrik asko.

DURANGALDEA ASTEON

Lehen sorospen eta kardio-babes ikastaroak

DURANGALDEA Zornotzako Udalak lehen sorospen ikastaroa emango du. Saio bi izango dira, urriaren 16an eta 23an. Ikastaroak Bihotz Birika Berpiztea (BBB) eta desfibriladoreen erabilera izango ditu hizpide. Durangon, kardio-babes sistema osoa instalatzeko lanak esleitu dituzte.

Urriaren 6an mendi martxa Derandainen eskutik

ZORNOTZA Saharaz hegoaldeko neska eta emakumeek hilekoaren osasunagaz eta higiezagaz dituzten arazoengatik sentsibilizatzeko asmoz, Derandain fundazioak VI. Mendi Martxa antolatu du. Ibilaldiak 10:00etan izango du irteera, Yalens Tavern-etik. Izen ematea doakoa da eta oraindino egin daiteke, derandain.org webgunean, derandain@derandain.org helbidera idatzita, edo irteeran bertan.

500.000 euro gehiago Giza Larrialdietarako

DURANGALDEA Durangaldeko Mankomunitateak 500.000 euro gehitu ditu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) partidara, diru laguntza horietarako jasotako eskaerak handitu ondoren. "Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako partida handitzeak agerian uzten du Mankomunitateak pertsona ahulekin izan gura duen konpromisoa", azaldu dute Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentek eta Ainara Otxotorena presidenteordeak.

GUTUNAK

Eskerrik asko, Dario!

IURRETAKO EH-BILDUKO ZINEGOTZIAK
IURRETA

Lankide aparta galdu dugu EH Bilduko udal taldean, baina gidari ona irabazi du Iurretako Kirol Taldeak. Eskerrik asko, Dario, legegintzaldi honetan gure bidelagun izan eta egin dizkiguzun ekarpen guztiak egiteagatik.

Plazer bat izan da zu gure ondoan izatea, beti lanerako prest, langile nekazina, iurretarron defendatzaile sutsua. Bakoitzaren ildo politikotik harago Iurretaren aldeko elkarlanaren sustatzailea. Kalean gertatzen denari so, herriaren beharrak eta nahiak izan dituzu eta dituzu lehentasun.

Argentinako kutsua duen zure umore horrekin zenbat barre egin dugun... udaleko ekintzetan jarri izan duzun ilusioa eta kemena: jubilatuen bazkarietan, paella solidarioak antolatzen, Olentzeroren harreran edo erregeen kabalkadan...

Gainera, euskararen aldeko jarrera tinkoa erakutsi duzu, eredugarria zara!

Horregatik eta gehiagotatik, betirako izango zara gure KIDEA!

Etapa berri honetan hoberena desio dizugu. Badakizu alboan izango gaituzula behar duzunerako. Herritik eta herriarentzat lanean. Maite zaitugu.

Ziortza Duñabeitia, Iñako Gurrutxaga eta Udane Zugaza-Artaza.

Zure gutuna helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteko barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGOKO SAN FAUSTO JAIK 2024




**SAN FAUSTO
JAIK 2024** 

**ONDO PASA
JAIETAN**

Gozatu dezagun
elkarrekin
berdintasunean
eta errespetuz



durango
zurekin, contigo

JAI EGITARAUJA

URRIAK 5

08:00 Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditik. (Antolatzailea: Errotari elkarte mikologikoa)

09:00 - 14:00 XIV. Durangoko azoka ekologikoa Andra Marian. (Antolatzailea: Marisatsa)

18:00 39. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finalerdiak. Neskak eta mutilak gazte-nagusi mailan. Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Antolatzailea: Durango Jai Alai zesta-punta eskola)

URRIAK 6

11:00 XXIV. mikologia erakusketaren edizioa. Argazki mikologikoen lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16

urtetik beherakoentzako XXIII. lehiaketa. Landako Gunean. (Antolatzailea: Errotari)

18:00 39. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finalerdiak. Neskak eta mutilak gazte-nagusi mailan. Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Antolatzailea: Durango Jai Alai zesta-punta eskola)

URRIAK 11

18:00 Kuadrillen elkarretaratzea eta animazioa San Fausto auzoan.
18:30 Durangoko pilota eskolako umeen partiduak. San Fausto pilotalekuan eta Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Antolatzailea: Durango pilotazale kluba)

19:00 Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan.

Ondoren, kuadrillen jaitsiera udaletzeko plazaraino, Sugarri fanfarreagaz.

20:00 Txupinazoa udaletzeko plazan. (Txupinazoa zuzenean eskainiko da Andra Mariko elizpean)

20:15 Argazkien bideoa: San Faustoko jaiak, antzinako eta gaur egungo bizipenak. Andra Mariko elizpean ipiniko den pantailan.

20:30 Kalejira Santa Anatik txosnagunera. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

21:00 Txupinazoa txosnagunean, euskalgintzako eragileen eskutik.

21:00 Kale animazioa Sugarri fanfarreagaz.

21:30 Kontzertuak: Gozzue, Ainke, Katu, DJ Kuku eta DJ Kene txosnagunean.

22:00 Kontzertua: Shinova. Ezkurdin.

URRIAK 12

DURANGOKO RUGBY TALDEAREN EGUNA. MOZORROA: OLINPIAR JOKOAK

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

08:30 Sukalki txapelketak Landako Gunean. (Izen ematea eta informazioa Intxaurren, irailaren 24tik aurrera plazak bete arte).

11:00 - 13:00 Umeentzako marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen ematea 10:00-12:00. Adina: 6-17 urte.

11:00 - 14:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan (Euria bada, Landako Eskolako frontoian).

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:30 Ipuina ingelesez Ezkurdiko kioskoan. 3tik 8 urtera arteko umeentzat. Euria bada, Jesuitak ikastetxean. (Antolatzailea: Kids & Us)

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin.

12:00 Gazte kamiseta banaketa. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

12:30 Kalejira Bogoroditsie abesbatzaren eskutik, Alde Zaharretik.

13:00 Tio Teronen Semeak dantza konpainia. Haurreskolari ikuskizuna. Ezkurdin. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

14:00 Herri bazkaria San Fausto auzoan. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte).

14:30 Gazte bazkaria txosnagunean. Euria bada, Kurutzia ikastolan.

16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

16:00 Skate tailerrak eta erakustaldia. Landako skate pistan. Euria bada, ez da egingo.

Kaixo Durango!

Ondo pasa
San Fausto
jaietan!

 **EROSKI**
zurekin

16:30 Musika animazioa DJ MiniAnn, Landako Gunean.

17:00 Gazte jolasak txosnagunean.

17:00 Familientzako herri kirolak Ibaizabal parkean.
Euria bada, txosnaguneko karpan.
(Antolatzailea: Auzo Alai elkarte)

17:00 Kuir Eztandaren poteo transmaribolloa Pinodotik txosnagunera.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

17:30 Senegalgo erritmoak, M'Lomp elkartearen eskutik. Ezkurditik hasita.

18:00 Umeentzako entzierroa zezen puzgarriekin eta gurdiekin.
San Fausto auzoan.

18:00 Magia saioa Eleder Magoaren eskutik: Magia mundiala.

18:00 39. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finalak. Neskak eta mutilak gazte-nagusi mailan.
Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.
(Antolatzailea: Durango Jai Alai zesta-punta eskola)

18:30 Txaranga txosnagunetik hasita.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

19:30 Blusa txaranga Sugarri fanfarreagaz. Irteera Ezkurditik.

19:30 Kalejira mariatxiekin San Fausto auzoan.
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte)

20:00 Umeentzako kontzertua: Batetik bestera kontzertua, Benetan Be konpainiaren eskutik.
Benita Uribarrena parkean.
Euria bada, Plateruenan.

21:00 Kontzertua: Puro Relajo. Andra Marian.

21:30 Ghanako txaranga. Alde Zaharretik.

22:00 Disko dantza San Fausto auzoan.

22:00 Kontzertuak txosnagunean: La Txama, Tatters eta Malakias MX3.

22:30 Kontzertua: Caiman orkestra Madalenan.

23:00 Kontzertua: DJ Markelin. Ezkurdin.

URRIAK 13

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:30 - 14:30 Eixu artisau elkartearen azoka Ezkurdin.

11:00 - 14:00 Umeentzako puzgarriak San Fauston

11:00 Paella txapelketa San Fausto auzoan.
Izen ematea: San Fausto frontoian.
Paellak aurkeztea 14:00etan, 14:30etan.
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte)

11:00 Meza nagusia San Faustoko elizan.

11:00 Umeen goitibeheren jaitsiera. Probak.
Tabira auzoan.

11:00 - 14:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:00 - 13:00 Umeentzako tailerrak Ibaizabal parkean.
Euria bada, San Antonio ikastetxean
(Antolatzailea: Inurri Skaut)

12:00 Poneyak eta zaldiak Ibaizabal parkean
Euria bada, ez da egingo.

12:00 Ume familientzako ikuskizuna
Txosnagunean.

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Arte Martzialen kalejira.
(Antolatzailea: Wado Kan Karate - Ninjitsu elkarte)

12:30 Paella txapelketa txosnagunean. Sari banaketa, 14:00etan.

12:30 Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan.
Ondoren, Kriskitin Dantza Taldea. Amaitzeko: Larrain dantza.
Euria bada, Andra Mariko elizpean.

13:00 Durango kantari. Egundo I taldea. Alde Zaharretik.

16:00 III. goitibeheren jaitsiera
Tabira auzoan.

16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan.
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

17:00 Gazteentzako jolasak Ezkurdik.
Euria bada, Nevers ikastetxean.

17:00 Mañaria errekaen jaitsiera Tabiratik.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

17:00 Txokolatada San Fausto auzoan.
Euria bada, San Faustoko frontoian.
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte).

17:30 Umeentzako jolasak San Fausto auzoan.
Euria bada, San Faustoko frontoian.
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte).

18:00 Antzerkia: Herencia ikuskizuna, La Industrial teatrerako konpainiaren eskutik. Ibaizabal parkean.
Euria bada, Kurutziaga ikastolan.

18:30 Dantzaro: Patxi eta Konpainia taldea.
Andra Mariko elizpean.

19:00 Bertso poteoa txosnagunean.

viteri

HORTZ-KLINIKA

944 14 80 36 | 626 18 30 30 | Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia | www.clinicadentalviteri.com

Lehen bisita:
Erradiografia, diagnostikoa
eta hortzak
garbitzea doan

Deskontuak Inplantologian eta Ortodontzian

PROMOZIOAREN LUZAPENA

(2024ko azaroaren 22ra arte)

Finantzatu zure tratamendua 24 hilabetera arte, interesik gabe.

(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

20:00 - 22:00 Umeentzako diskodantza San Fausto auzoan.

21:00 Kontzertua: Haize Arrosa. Ezkurdin.

21:30 Karaokea eta DJ Maratoi herrikoia txosnagunean.

22:00 Diskodantza San Fausto auzoan.

URRIAK 14

UMEEN EGUNA

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 - 12:00 Durango Irratia airean!

Solasaldiak. Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik, Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

11:00 Umeentzako xake txapelketa Andra Marian. (Antolatzailea: Larrasoloeta xake taldea).

11:00 - 14:00 Umeentzako

parkea Landako Eskolan (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

11:30 Umeentzako kalejira Alde Zaharretik, buruhandiekkin.

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Patxikotxugaz kalejira San Antoniko ikastetxeagaz, Ezkurditik udaletxera. Ondoren, ohorezko aurrekua Kriskitin Dantza Taldearen eskutik.

12:30 Txupinazo txikia udaletxeko plazan.

13:00 Animazioa: DJ Bull. Andra Mariko elizpean.

14:00 Nagusientzako bazkaria Landako Gunean, orkestrak girota.

16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

17:00 Tailerren txokoa eta Pomper ikuskizuna Ezkurdin.
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

17:00 Apar jai eta txokolatada. Muretatorren.
(Antolatzailea: Mureta Torre auzo elkarte).

18:00 Tortilla txapelketa San Fausto auzoan. Tortillak aurkezteko epea: 20:00ak.
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte)

18:30 Antzerkia: Erantsi SL ikuskizuna Goitibera antzerkia konpainiaren eskutik. Otamotzena parkean.
Euria bada, Kuruziaga ikastolan

20:00 Kontzertua: Gaur jai taldea, Andra Mariko elizpean.

URRIAK 18

18:00 Trotamundos zirku taldea Ezkurdin 'Finito-Infinito' ikuskizunagaz
Euria bada, Kuruziaga ikastolan.

19:00 Tortilla txapelketa, Txosnagunean. Sari banaketa, 20:30ean.

19:00 Pilota Fest, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan: Mikel Goñi-Bernaola / Oinatz Bengoetxea-Eguren.

19:30 Fanfarreen arteko norgehiagoka. 'Deiadar' fanfarrea Otamotzena auzotik aterako da. Tximeletak txarangaren hasiera Madalena auzotik.

20:00 Kontzertua: Astarloa Otxotea, Bogoroditsie eta Izar Gaztea. Durangoko abesbatzak Santa Ana elizan.

20:00 Umore Ikuskizuna: 'Monólogos a dos bandas'. Andoni Agirregomezkorta eta Nerea Garmendia.
Andra Mariko elizpean.

21:30 Kontzertua: Nahiez taldea. Ezkurdin.

21:30 Fanfarreen norgehiagoka udaletxeko plazan.

22:00 Kontzertuak: Txopet, Pinpilinussies eta Belako. Txosnagunean.

22:30 Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Jone Uria, Aitor Bizkarra, Xabat Illarregi eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga. San Agustin Kulturagunean. Gonbidapenak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

23:00 Kontzertua: Esne Beltza.

URRIAK 19

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu bakoentzat Ezkurdin. Izen ematea, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.
(Antolatzailea: Larrasoloeta xake taldea).

11:00-14:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00 - 14:00 umeentzako tailerrak Asebier elkartearen eskutik. Landako Eskolan
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.


12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri-txiri taldearen eskutik.

12:00 XV. patata tortilla

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

DURANGO

72,36€
EMAN IZENA

**HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

Ziurtagiri Ofiziala · Certificación Oficial
Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK
Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 94 81 66 45
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

ELUSKO JAIKUNTZA GOBERNUO YAKSCO
HEZKUNTZA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

NEOI
Hezkuntza Erakunde Ofizialak
Eusko Jaurlaritzaren Arloko

T3
tabiraberezi
Telekomunikazioak
Informatika

f i in

Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango
94 681 22 04

info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com

txapelketa Landako Gunean.
Izen ematea eta informazioa:
Intxaurrondon, urriaren 1etik
aurrera.

13:00 Kontzertua: Luhartz taldea Andra Mariko elizpean.

14:00 Elkartasun bazkaria.
Txosnagunean.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

17:00 Animazioa trikitilarietara adinekoen egoitzatik hasita.

17:00 Karaoke ibiltaria herriko kaleetatik.

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz.

18:00 Kalejira Elektrotxaragaz.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

18:30 Antzerkia: Harreman ikuskizuna, Zirkoaurre elkartearen eskutik.
Ibaizabal parkean.
Euria bada, Kurutzia ikastolan.

18:30 Mozorroen desfilea Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Amaieran sari

zozketa.
Izen ematea: urriaren 1etik 18ra
Intxaurrondon.

20:00 Erromeria: Luhartz taldea.
Andra Mariko elizpean.

22:00 Kontzertuak: Rolando Bruno eta Goxua'n Salsa.
Txosnagunean.
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

23:00 Atlantida Show Orkestra.
Ezkurdin.

00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa.
Txosnagunean.
(Antolatzailea: Mankomunitatea)

URRIAK 20

7:00 Diana Jaizale taldeko txistularietara.

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 Mañaria ibaiaren garbiketa.
Hasiera: Pinondo Plazan.

10:00 Dantza maratonia. Batxata, kizomba, saltsa eta afro dance tailerak. Ondoren, dantza bermuta animazioagaz girotuta.

Murueta Torre auzoan.
Euria bada, Plateruenan.
(Antolatzailea: Murueta Torre auzo elkarteak)

11:00 San Fausto XII. Padel txapelketako finalak.
Landako kiroldegian.
(Antolatzailea: Padelzaleak).

11:00-14:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00-14:00 Gaztetxentzako jolasak Ibaizabal parkean.
Euria bada, Landako Gunean.

12:00 Marrazki lehiaketa.
San Fausto auzoan.
(Antolatzailea: Centro Social San Fausto)

12:00 Emanaldia: Tabira Musika Banda.
J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 Poneyak eta zaldiak.
Tabira parkean.
Euria bada, ez da egingo.

12:00 Kalejira, Musika Eskolako txistularietara.

12:00-14:00 Arku Tiroako Gunea, Ibaizabal parkean
Euria bada, Landako Gunean.

(Antolatzailea: Durangoko Arkulariak).

12:30 Herri Kirolak. Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Karmele Gisasola, Bihurri, Karlos Aretxabaleta, Goizeder Beltza, Ainhoa Larrinaga eta Aratz eta Enara Beltza ume aizkolariak.
Ezkurdin.
Euria bada, Landako Gunean.

12:30 Kalejira Alde Zaharretik: Astarloa Otxotea eta Iruñeko Ahots Taldea.

13:00 Durango Uria XXIV. Margo Lehiaketako sari banaketa.
Ezkurdiko erakusketa aretoan.
(Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarteak)

13:15 Kontzertua: Tabira Musika Banda Andra Marian.

16:00 Arku Tiro txapelketa.
Landako Gunean.
(Antolatzailea: Durangoko Arkulariak)

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa: L'Atelier Dantza Eskola.
Ezkurdin.

18:00 Musika saioa: De Balada taldea Andra Marian.

18:30 Gora eta Gora adinekoen

antzerki taldea 'Las que cuentan' ikuskizunagaz.
San Agustin kulturgunean.
Gonbidapenak doan Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

18:30 Kalejira Irulitxa fanfarreagaz Alde Zaharretik.

19:30 Kalejira Patxikotxuri eta jaietara agur egiteko.

URRIAK 26

20:00 Durango txistu kontzertua 2024.
(Antolatzailea: Silboberri)

URRIAK 27

08:00 Durangoko I. Mendi martxa. Ibilbide luzea, 25km. Irteera 08:00etan. Ibilbide laburra, 14km. Irteera 09:00etan. Landako Gunetik hasiko dira biak.
(Antolatzailea: Alpino Tabira Mendi taldea)

12:00 55. Umeen Euskal Jaiak. Talde guztiak Landako Gunean batuko dira. Kalejira egingo dute. Ondoren, alardea Ezkurdin.
Euria bada, Landako Gunean

ALLUITZ MOTOR ZURE KONTZESIONARIOA VOLKSWAGEN, AUDI ETA SEAT DURANGON

ZERBITZU OFIZIALA • SALMENTA ZERBITZUA ETA SALDU OSTEOA • TAILER MEKANIKOIA

ALLUITZ MOTOR ALLUITZ KALEA, DURANGO TLF. 946 20 20 04 GOZATZEKO TEKNOLOGIA

RPS: 145-13

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Urrike Liburudenda

📍 Kalebarria z/g, Durango
☎ 946 201 893
📧 urrike_liburudenda
📱 Urrike liburudenda

• Enkarguzko testuliburuak
• Hizkuntza eskolako liburuak
• Euskarazko eta gaztelaniazko literatura-funts handia

LOTERIAK PRENTSA **barik**

IKERFER

Ermodo, 25 behea Durango
Tel.: 946 810 566



Esne Beltza otsailaren 1ean agurtuko da, baina lehenago agur birako kontzertuetariko bat emango du Durangon. ESNE BELTZA

Jai egarria asetzeko moduko 160 ekitaldi

Durangoko txoko eta bazter bakoitza bizitzaz, kulturaz eta entretenimenduz beteko da urriaren 11tik 20ra. Ekintzetariko asko, herriaren erdigunean barik, auzoetan izango dira. Udalak eta jai batzordeko eragileek ondo pasatzera animatu dituzte herritarrak

Ekaitz Herrera EGITARAUA

Gauza bi seguruak dira. Bat: durangarrek zoramenerako hamar egun dituzte aurretik; eta bi: herritarrek euren intereseko ekitaldi ugari topatuko dute egitarauan. Halantxik ziurtatu dute behintzat udal ordezkariak eta jai batzordea osatzen duten kideek. Eta esandako guztia behar den moduan bete dadin, 160 ekitaldi antolatuta dituzte jaiak kalean ospatzearen plazera herriko bazter guztietara zabaltzeko. Izan ere, herriko erdigunean bakarrik ez, aurten ere jaiak erdigunetik haragoko auzoetara eramango dituzte hainbat ekitaldigaz. San Faustoko auzotarrek, adibidez, ez dute laino beltzei begira kezkatuta egoteko motiborik izango, aurten, lehenengoz, karpa bat izango dute eta auzoan. Besteak beste, bertan egingo dituzte urteroko paella eta tortilla txapelketak. Otamotzena auzoak umeentzako ekitaldi bat hartuko du: Goitibera konpainiak *Eraitsi SL* obra taularatuko du Herria Auzo Elkartearen bitartekaritzagaz. Madalenako plaza Caiman orkestraren erritmoez jabetuko da, eta Muruetatorreko auzotarrek

apar jaiak, dantza maratokia eta txokolatada egingo dituzte.

Segurua den jaietako beste ezaugarri bat gau giroa izango da. Pentsatzekoa da aurten ere txosnagunea, Ezkurdi eta Goienkale inguruak gautxorien tenplu izango direla. Eta jaizaleek izango dituzte horretarako arrazoi sendoak, asko dira eta herriko jaietan izango diren musika kontzertuak. Esne Beltzak bere agur birako emanaldietariko bat emanago du Ezkurdin; Puro Relajok rantxerazaleak dantzaraziko ditu Andra Marian, eta txosnetan Belakok, Tatxers-ek eta La Txamak ipiniko dute, besteak beste, gatza eta piperra. Azpimarratu beharreko beste emanaldi bat Shinovarena da; Durangaldeko pop-rock taldea da, Durangoko, Berrizko eta Abadiñoako kideekin osaturikoa. Baina, etxean barik, kanpoan izan dute arrakasta handiagoa. Espainiako estatuan punta-puntako taldea egin da Shinova, eta Ezkurdin joko dute, herrian jotzeak dakarren ohoreagaz eta presioagaz. Horiek guztiak eta gehiago durangarren jai egarria asetzeko ekitaldien artean.

ANELAN
LAN BERTIKALAK
FATXADA ETA PATIOEN BIRGAITZEAK
TEILATUEN MANTENIMENDUA
BIZI BIDEAK
LEHIOEN GARBIKETAK

BIZKAIA / NAFARROA
722 345 215 / 616 413 660
info@anelan.pro

DEITU ETA GALDETU
KONPROMISORIK GABE

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinalako telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 646762022
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

A-ALKI

Erreformak eta dekorazioa
Mikeldi 6 Durango
www.interioresalki.com
alki@interioresalki.com
94 681 38 95 - 679 097 744



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

RPS... 07/16

Ekintza ugari jaiez egunez ere gozatzeko



Tio Teronen Semeak konpainiak ikuskizuna egingo du.



Paella txapelketak San Fauston zein Landako Gunean egingo dira.



Sugarrik makina bat bider girotuko ditu herriko kaleak. UNAI OLASO



Gatz asko ala gutxi, sukalkia beti da ona lagun artean. UNAI OLASO



Eleder magoak ikuskizuna egingo du umeentzat. ELEDER MAGOA



Patata tortilla txapelketan lehia egongo da aurten ere. UNAI OLASO



Ate irekiak urte osoan

BANAKAKO BISITAK
 Eskatu zure hitzordua:
 94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
 (0 urtetik 18 urtera)

www.durangojesuitak.org •   

Jai zorientsuak!

San Fausto 2024

SAN ROKE BARRIA

Zure hitzordua eskatu:

sukia.com

edo deitu iezaiguzu:

946 462 041



Zure etxean zaude Estás en tu casa

Joseba Derteano PREGOIA

Bere herriko pregoilaria izatea "ohore handia" da Vanessa Goikoetxea sopranoarentzat. Mundu osoko eszenatokietan abesten du, eta, agenda bete-beterik duen arren, aurten geldialdia egingo du San Fausto jaietan.

Durangoko pregoilari izateak zer esan gura du zuretzat?

Ilusio handia egin dit. Benetan irrikan nago aurtengo jaietan egoteko. Txikitatik familia gozatu dut jaiez, eta akordu asko dut, maitasun handiz gogoratzen dudun une asko: artopilak, Ezkurdin egiten ziren kuadrillen desfileak... Urte askoan ezin izan naiz jaietan egon, laneko bidaiak direla eta, eta, horregaitik, aurtengoa oso berezia izango da.

Aurrera eta atzera ibiltzen zarenez eta asko bidaiatzen duzunez, gatz izango zen zure agendan jaiak leku egitea.

Bostonen izan naiz (AEB) abesten. Orain Andres Isasiren abesti batzuk grabatuko ditut eta aurkezpena Getxon izango da. Hartara, posible izango da jaietako ekitaldi nagusietan izatea. **Noiz bizi izan zenituen azken sanfaustoak?**

"Durangarra izanda, jaien parte izatea oso polita da"

VANESSA GOIKOETXEA AGORRIA SOPRANOA

Durangoko Udaletxeko balkoitik jaiak hasiera emango die Vanessa Goikoetxea sopranoak. Esango dituen berbak musikagaz loturaren bat izango dutela aurreratu du

Ez dut gogoratu ere egiten. Agian egun baten edo bitan izango nintzen hemen, baina jai osoetan ez. 20 urte dira Durangotik kanpora nagoela.

Pentsa dezakegu eszenatoki handietara ohituta dagoen pertsona bat ez dela urduri ipiniko bere herriko udaletxeko balkoian pregoia irakurtzerakoan. Hala da?

Ohituta nago eszenatoki gainean egoten, baina abesten. Nire herrikideen aurrean pregoia irakurtzea beste kontu bat da, eta, egia esanda, ez nago prestatuta

horretarako. Oraindik ez dut zehatz-mehatz pentsatu zer esango dudun. Musikari buruz berba egingo dut, hori seguru. Durangarra izanda, oso emozionatuta nago; jaien parte izatea polita da.

Plaza garrantzitsuetan abestu ahala, urteetan ikasi egiten da urduritasunari neurria hartzen ala beti dago zirrara berezi bat eszenatokira irten aurretik?


Zirrara hori beti dago hor, baina esperientziak kontrol apur bat ematen dizu. Gustatzen zait adrenalina, eta eszenatokiak ematen dit hori.

Baduzu trukerik urduritasunari aurre egiteko?

Ez, publiko aurrean asko disfrutatzen dut. Dena dela, opera guztiak ez dira berdinak. Lan batzuk errazagoak dira, eta beste batzuk gatzagoak. Baina hor nagoenean esker onekoa naiz. Abesten dudanean jendeak ondo pasatzea baino ez dut gura.

Non harrapatu zintuen pregoilari izateko proposamenak?

Oker ez banago, Florentzian (Italia) nengoela deitu zidaten proposamena egiteko. Gero, Bostonera (AEB) joan nintzen.



Bizitza zoragarria da atsedean hartuz gero.

Du zure premiak erabiltzeko prest izango gara.

bed's koltxoak - denda
Alutx 1, Durango
T. 946 005 980

bed's
el durangoko y la

KOLTXOAK | OHE-ONARRIAK | BUREAK | OHEO ARBOKA



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



DESGUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.



946 818 381
ARRIANDI INDUSTRIALDEA, P-1
48215 IURRETA- BIZKAIA
estacionservicio@arribide.com

ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

Jaien ondoren, *Madame Butterfly* lanaren entseguekin hasiko naiz. Gero, Madrilen beste proiektu bat dut, *El manojo de rosas*. Handik Italiara joango naiz.

Horrek badu nomada bizimoduaren itxura.

Ohituta nago. Maletak egin eta desegin, horixe da gustatzen ez zaidan bakarra.

Jaiak ez dira berdin bizi izaten umeak eta helduak garenean. Zelan gogoratzen dituzu txikitako jaiak?

Musikagaz gogoratzen ditut, giro onean: dantzan, abesten, txosnetan... Orain ama naiz eta umeen ekitaldietara joaten gara. **Aurtengo jaietan ez zara pilotalekutik urrun egongo.**

Zesta eskolako taldean parte hartzen dut. Azken hileetan oso lanpetuta egon naiz, baina badakit finala topera egongo dela. Jai Alai oso garrantzitsua izan da beti Durangon. Urte askoan beherakada bizi izan badu ere, orain berriro ere ipini dugu martxan. Galdu duen su hori bizitzen hasi gara. Jendea ekin-tza guztietara joatera animatzen dut, baina Jai Alaira bada, hobeto.



Nondik datorkizu pilotarako zale-tasuna?

Oraintsu Bostonen izan naiz abesten, eta gurasoak bisitan etorri dira. Aitak Floridan Palm Beachen eta New Porten jokatz

zuen. Orubete dago batetik bestera kotxez. Gurasoak Floridan egoten dira, baina New Porten ez, eta bidaia hori baliatu genuen bertara joateko. Frontoia zarratu egin zuten, baina

han bizi izandako uneak gogoratu genituen.

Zelan hasi zinen musika ikasten? Ameriketatik etorri ginenean, San Antoniora joan nintzen ikastera. Lehen mojak zeuden.

Ahizpa bik musika ematen zuten. Pianoagaz, akordeoiagaz eta solfeoagaz hasi nintzen. Gero, ikasketa arautuak egiteko, Bartolome Ertzillara joan nintzen. Goi mailako ikasketak Bilbon eta Madrilen egin nituen. Durangoko musika munduagaz konexioa izaten jarraitzen dut. **Abeslarietarako perfekzioa eskatzen zaizue.**

Hala da. Opera perfekzioaren gailurra da. Guk erabiltzen ditugun musikuak oso txikiak dira. Eskuekin jotzen ez duzun tresna bat da. Eta egunero ez zaude berdin. Gorputz osoak abesten du, ez bakarrik ahots kordek. Gaur egun irratan entzuten diren abesti askotan auto-tunea dute, eta hori beste gauza bat da.

Ikusi duzu Celine Dionen dokumentala? Bere ahots arazoaren berri ematen du, oso modu gogorrean.

Celine Dion beti gustatu izan zait. Formakuntza lirikoa du. Ahotsagaz arazoak izan dituzten lagunak ditut, ahots kordak oso txikiak dira, eta, txarto erabiltzen badituzu, gorputza kezu izango da. Teknika bat dago abesteko, eta erabili egin behar da.

GOZOTEGIA
gozatu
DURANGO

San Faustoak!!!

Azken biak!

Elorrion

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, Iurreta

"Ilusio handia dugu txupinazoa jaurtitzeko"

OIER URIGOITIA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

San Antonio Ikastetxeko Norak eta Ismenek botako dute txupinazoa, baina ikasle guztien parte hartzea izatea gura dutela esan du Oier Urigoitia zuzendariak



Oier Urigoitia Ismene eta Norarekin.

Maialen Zuazubiskar TXUPINAZOA

Azken urteotan, bakoitzean Durangoko ikastetxe batek bota du txupinazo txikia jaietan, eta aurten San Antonio ikastetxeko ikasleek izango dute ardura hori. Oier Urigoitia zuzendariak aurrreratu du Nora eta Ismene ikasleak igoko direla udaletxeko balkoira.

Aurten zuek izango duzue Durango-ko jaietako txupina jaurtitzeko ohera. Zelan zaudete?

Ilusio handiz hartu dugu. Zozketa bidez erabakitzen da eta bagenekien egunen batean tokatuko zitzaigula. Aurten egokitu zaigu eta oso pozik gaude, ilusio handiagaz, horrek bere erantzukizuna duen arren.

Dagoeneko erabakita duzue nork jaurtiko duen txupina.

Bai, Norak eta Ismenek jaurtiko dute. Durangon Haurren Kontseilu bat dago, eta biek kontseilu horretan parte hartu zuten iaz; beraz, eurek izango dute txupina jaurtitzeko ohorea.

Prest duzue pregoia?

Norak eta Ismenek irakurriko

dute, eskola osoaren izenean, baina horretan ikasle guztiak inplikatzeko gura izan dugu, eta denon artean gabiltza ideiak hartzen. Behean txupinazoa ikusten daudenak ere momentu horren parte izatea gura dugu; horregaitik, abestiren bat, bertsoaren bat edo bien arteko konbinazioen bat prestatzea darabilgu buruan. Oraindino zehaztu barik dugu. Ea aurkitzen dugun moduren bat denak partaide sentitu daitezten.

Jaietako prentsaurrekoan mugikorra albo batera uzteko gonbita egin zenuen, eta unean unekoa gozatzeko deia egin zenuen. Zergaitik? Oihartzun handia hartzen dabilen gaia da eta jendea mugitzen dabilela ikusten dugu. Ematen du umeek ez dutela momentua bizi izaten, bizitza birtual batean daudela, eta galdu egiten dutela aurrean dutena. Gazteentzat hainbat gauza antolatzen da lagun artean egon daitezten eta elkarrekin disfrutatu dezaten, baina mugikorraren erabilera muga bat da horretarako, eta horrek pena itzela ematen dit. **Euskaraz berba egiteko deia ere egin zenuen.**

Kalean umei erdaraz entzuteak pena handia ematen dit, eta poz handia euskaraz dabilzanean. Jai giroan denok dugu jarrera baikorragoa, eta hainbat gauzek lagundu dezakete giro euskalduna zabaltzen: kaleek, guneek, eragileek.... Umei erakutsi egin behar zaie bizi daitekeela euskaraz, eta euskara dibertigarria dela.

Beste ezer gehitu gura zenuke?

Ekintzetan eta jaietan jarrera baikorragaz parte hartzeko deia egiten diot jendeari, programan ondo begiratu eta jai batzordeak antolatu dituen ekintzetan parte hartzeko deia.

Etxeko txikiek gozatzeko ekintzak

Hemen batu ditugu umeen egunean etxeko txikien hain kasa ibiltzeko ekitaldi batzuk.

- **11:00 - 14:00**
Umeentzako parkea
Landako Eskolan
- **11:00 - 14:00**
Gaztetxoen zoko jolasak
Ibaizabal parkean
- **11:30** Umeentzako kalejira Alde Zaharretik, buruhandienekin
- **12:00** Patxikotxurekin kalejira San Antonio ikastetxearekin, Ezkurditik udaletxera. Ondoren, ohorezko aurrekua Kriskitin Dantza Taldearen eskutik
- **12:30** Txupinazo txikia udaletxeko plazan
- **13:00** DJ Bull. Andra Mariko elizpean
- **16:00 - 19:00**
Umeentzako parkea
Landako Eskolan
- **17:00** Tailerren txokoa eta Pomper ikuskizuna Ezkurdin
- **17:00** Apar jai eta txokolatada Muruetorren
- **18:30** Antzerkia: Erantsi SL ikuskizuna Goitibera antzerkia konpainiaren eskutik. Otamatzena parkean

DURANGOKO JAIXETAN JAN, EDAN ETA GOZATZEKO LEKU APROPOSA!

Gora sanfaustoak!

TEL: 946 216 372 · @GORAGORAKAFE

ZERO

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetakofariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.

Andra Mari, 6 Durango
Tel.: 946 812 222

MESOI BARRIA

Tel.: 946 030 341

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIRUA

688 864 975
zuretxokoa@gmail.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 behea, 5. esk. • 48.200 Durango - BIZKAIA

"Lehiaketak onak dira norbere artea besteekin partekatzeko"

MAITE ROBLES KARTEL EGILEA

'Giro Alaiak' kartelak iragarriko ditu aurtengo Durangoko jaiak. Kartel dinamikoa da eta Maite Roblesek egin du. Berrizarrak lehiaketa hauen garrantzia azpimarratu du

Maialen Zuazubiskar DURANGO
Maite Robles berrizarraren *Giro Alaiak* ilustrazioak iragarriko ditu aurtengo Durangoko jaiak. Roblesek afizioz egiten ditu horrelako lanak, baina etorkizun batean afizioa ofizio bihurtzea du helburu.

Zelan jaso zenuen kartel lehiaketa irabazi izanaren albistea?

Orain hiru bat aste jaso nuen berria. Klasetik irteten nengoe-la, Durangoko udaletik deitu zidaten. Lehiaketako irabazlea nintzela esan zidaten. Pozez hartu nuen notizia.

Kartelean zer islatu gura zenuen?

Fikziozko egoera bat. Hasieran hainbat gauza sartu gura nuen,



Maite Robles kartel irabazlearekin.

baina kartela larregi ere ez nuen kargatu gura. San Fausto jaietan ohitura nagusi direnak ekarri gura nituen kartelera. Kartel dinamikoa, koloretsua eta alai egiten ahalegindu naiz, jaietako ekintza eta ohiturak nahastuta.

Zelakoa izan da kartela egiteko prozesua?

Hasieran eduki nituen ideiak eta amaierako emaitza oso desberdinak direla esan behar dut. Ilustrazio hau egiteko, alde batetik, Durangoko zenbait gune hartu eta uztartu egin ditut: eliza, udaletxea... Gero, gune horiek eszenatoki bihurtu ditut. Bestetik, zein pertsonaia sartu eta zeintzuk kanpoan utzi erabaki behar izan dut. Prozesu guztietan lez, hainbat proba egin behar izan ditut amaierako kartel honetara, *Giro Alaiak* lanera, heltzeko.

Sarri aurkezten zara horrelako lehiaketetara?

Beti ahalegindu izan naiz horrelako lehiaketetan parte hartzen. Erreminta onak dira norbere artea besteekin partekatzeko eta norbera eta norbere lana ezagutarazteko. Horrez gainera, beste pertsona batzuek egiten duten lana ikustea ere oso baliagarria dela esango nuke, bakoitzaren lan pertsonalerako. Azken finean, hainbat gauza berri ikasi daiteke: teknika berriak, konposizio berriak edo dena delakoa.

Marraztea afizio baino ez duzu ala ofizio ere bihurtu gura zenuke?

Gaur egun afizioa baino ez da niretzat, baina gustatuko litzaidake etorkizunean ofizio izatea. Egin izan ditut lantxo batzuk orain arte: zenbait diskotarako azalak, erretratuak... Apurka-apurka hori profesionalizatzeko ahalegina egiten nabil. Orain urtebete inguru, adibidez, Instagrameko kontu bat zabaldu nuen eta egin ditudan lanak ikusi daitezke bertan. Beraz, nire lanen bat eskuratu gura duenak kontu horretan (@maiteilust) jarraitzeko aukera du.



Tortilletan espezializatuak.
18 mota desberdin.

Zatoz eta proba itzazu!
Gozatu jaietan!

Txibitena, 9 bajo C
Tel.: 602 387 814
48200 Durango

NAPOZY
Josemiel Barandiaran, 8
DURANGO
Tel.: 946 00 40 86

KIXO
Fray Juan de Zumarraga, 1
DURANGO

MIKELDI
TABERNA

Kalebarria 7 -Durango (Bizkaia)
Tel.: 944 073 988

AMALUR
etxe kriston gildak

Etxe berezitasunak: gildak, pintxoak eta bermutak.

Muruetatorre azunean Amalur 1
eta Barrenkalen Amalur 2
692 150 199

Ekaitz Herrera TXUPINAZOA

Iker Gomez de Segura Ibaizabal ikastolako zuzendaria, Koldo Zarate Euskal Herrian Euskarazeko kidea, Irati Landa Durangoko AEK-ko kidea eta Pello Zabarte Berbaro elkarte arduraduna Durangoko jaiei begira daude. Aurten zeregin berezi bat izango dute sanfaustoetan: txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute, Durangoko euskalgintzaren ordezkari legez. Bestalde, Berbaro euskara elkarteak aurreratu duenez, jaietako ekintzen antolakuntzari begira euskararen erabilerari buruzko azterketa egingo dute.

Zelan hartu duzue txupinazoa jaurtitzeko proposamena?

Iker Gomez de Segura: Aitortza baten modukoa da guretzat. Ohorea da, eta esker on moduko bat egin dugun ibilbidegaitik. Herriaren alde zoezer egiten dugula esan gura du; herritik jaso eta herriari bueltatu. Gure filosofia ondo ulertzen den seinale da.

Koldo Zarate: Politena da txosna batzordetik irten dela gaia.

Irati Landa: Elkarteei eta euskarari berari egindako aitortza bat da.

"Elkarteei eta euskarari berari egindako aitortza bat da"

DURANGOKO EUSKALGINTZA TXOSNAGUNEKO TXUPINAZOA

Euskalgintzak txosnaguneko txupinazoa jaurtiko du irailaren 11n. Eragileek jaietan emandako aurrerapausoez eta arnaguneeen beharraz gogoeta egin dute

Pello Zabarte: Ildo horretatik, gaur egun Berbaro txosna batzordean egon ez arren, etxeko sentitzen gara eta txosna batzordea aliatu legez sentitzen dugu Du-

rango eukalduntzera bidean. Alde horretatik, oso pozik gaude.

Euskararen erabilerari dagokionez, zein interpretazio egiten duzue?

K.Z.: Jaiei dagokienez, euskal-

gintzatik txosna batzordearen funtzionamendu euskalduneari lagundu dugu, egitarauak euskaraz kaleratzen, eta, hartara, udalekoan ere eragiten. Espazio

horren barruan egonda, euskalgintza motore bat izan dela uste dut. Herrira begira, hemen gauden eragileok eta beste batzuk ere, bakoitzak bere funtzioetik, gure aletxoak ipintzen dugu Durango euskalduntzeko. 40 urtean gauza askogaz arduratuta egon arren, asko egin dugu aurrera.

I.G.S.: Testuinguru orokorrera begira, Durangon gertatzen dena Euskal Herri osoko testuinguruan kokatu behar da eta errealitateak geroago eta antzekoagoak dira leku batean eta bestean. Eragile modura, gizarte joera jakin batzuen kontra goazela sentitzen dut. Konpromisoak behera egin duela esaten dugu eta egia da, eta tematu egiten gara gauzak beste era batera egiten. Garrantzitsua da zer egiten dugun, baina zelan egiten dugun ere bada inportantea, eraldatzaile izan gura dugulako. Hainbat lekutan eragiten dugu: hedabideetan, euskal alfabetatzean, aisialdi zerbitzu euskaltzaleak eskaintzen, hezkuntzan... Eredu arrakastatsuak dira eta hor daude. Eragina dugu herrian bertan, baina mugimendu zabalago baten parte izanda.



ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

- Hondakinak kudeatzeko instalazioa.
- Obra eta industriako hondakinen kudeaketa eta garraioa.
- Hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204



lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza
jazz barne diseinua
kudeaketa bisuala
lan guneak

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

REA:15/48/0017057
C.Z.: 0544-B



ARGOLABE

Joxemiel Barandiaran 8A,1C 48200 Durango
946814495 - 618068747 - 650397007
promotora@argolabe.eus

www.promotoraargolabe.com



DURANGO MARGOAK **MONTÓ** **La Pajarita**

Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO | Telf. 94 640 88 20
info@durangomargoak.com | www.durangomargoak.com

Zein da txosnen funtzioa euskaraz funtzionatu dezagun?

P.Z.: 2019an Berbarok lanketa bat hasi zuen Durangoko jaietako ekimenak zein hizkuntzatan egiten ziren aztertzeko, eta, alde handiagaz, txosna batzordearena da eskaintzarik oparoena euskarari dagokionez. Egitarauan ia dena da euskaraz, eta, bestela, ele bitan.

K.Z.: Funtzionamendu mailan, euskara hutsean diharduen espazioa da. Bai bileretan, bai komunikazioan... Hori ohikoa izan beharko litzateke, baina ez da leku guztietan horrela izaten. Irabazi ditugun gauzak dira eta garrantzitsua da horri eustea. Erreferentzia euskaldun bat gara. **Berbarok aurten ere azterketa egingo du jaien testuinguruan?**

P.Z.: Bai, jaietako ekintza guztiak zein hizkuntzatan egiten diren aztertzen dugu. Batzuk aurretiaz jakin daitezke, eta beste kasu batzuetan bertaratuta. 2019an nahiko datu kezkarriak izan ziren. Gutxiengo bat zen euskara hutsean. 2022an egindako azterketan hobekuntza orokor bat gertatu zen. Urte biko tarte honetan datu hobeak jasotzea espe-



Pello Zabarte, Irati Landa, Koldo Zarate eta Iker Gomez de Segura.

ro dugu. Programazioa eta musika aztertuko ditugu, barraketakoa esate baterako. Eremurik erdaldunenetariko bat barrakak dira, eta aztertu beharrekoa da, umeei zuzenduriko gunea da eta.

Plateruena dugu hemen ondoan, bere sasoian euskalgintzako eragile aktiboa izandakoa Durangon. Zein sentipen nagusitzen da zuengan Plateruena zarratuta ikusten duzuenean?

K.Z.: Tristura, baina esperantza ere bai. Oso berandu zabalduko da, 2025ean dio udalak. Irailean edo urrian bideragarritasun plan bat aurkeztuko zutela esan zigten Kultur Mahaian, eta orain-

dino ez dute batzarrera deitu. Horren zain gaude.

I.L.: Garrantzitsua da Plateruena martxan egotea. Erreferentzia da euskararentzat, eta garrantzitsua da zabalik egotea, bai jaietan eta baita jaietatik kanpora ere.

P.Z.: Tristura edo pena. Jaietan zein Durangoko Azokan beterik egoten zen eta hutsune hori denok igartzen dugula esango nuke. Aldi berean, aurrera begira zabalik egoteko esperantza dugu.

I.G.S.: Izanak izena behar du. Izanak leku jakin batzuetan gorputzea behar du eta iruditzen zait espazio fisikoa behar duela atzean dagoen dinamikari eta mugimenduari protagonismoa emateko. Gune bat itxita egotea ez da bakarrik areto bat itxita egotea. Horren atzean dagoen dinamika, indarra, izana eta izena... hori guztia. Durangok arnagune fisiko bat behar du, eta horren atzean dagoen dena. Basamortuan luze egon eta gero, kostatu egingo da hori guzti hori martxan ipintzea.

K.Z.: Sorginola ere itxi zuten. Durangon ez dago mota horretako eskaintza kulturalik.

DURANGOKO JAIAK 2024

URRIAK 11, BARIKUA

20:30 // KALEJIRA TRIKITILABIEKIN
ALDE ZAHARRETIK TXOSNAGUNERA
21:00 // TXUPINAZOA TXOSNAGUNEAN
HERRIKO EUSKALGINTZAREN ESKUTIA
21:30 // KONZERTUAK
GOZZUE
AINKE
KATU
KUKU ETA KENE

URRIAK 12, ZAPATUA

GAZTE EGUNA
BADATOR GAZTETXEA!

12:00 // KAMISETA BANAKETA
14:30 // GAZTE BAZKARIA
16:30 // KUADRILLA ARTEKO
OLINPIADAK
17:30 // KUIR EZTANDA POTOE
TRANSMARIBIBOLLOA PINODOTIK
TXOSNAGUNERA
18:00 // MAUXITXA TXARANCA
22:00 // KONZERTUAK
LA TXAMA
TATXERS
MALAKIAS MX3

URRIAK 13, DOMEKA

12:00 // UMEENTZAKO ETA
FAMILIENTZAKO IKUSKIZUNA:
YOGURINHA BOROVA
12:00 // PHELLA TXAPELKETA
SARI BANAKETA 14:00ETAN EGINGO DA
17:00 // ERREKA JAITSIERA
19:00 // BERTSO POTOEA SANTANATIK
TXOSMETARA
ANDER SARRIUGARTE
IRUNE BASAGOITI
IGURI ALTZERREKA
POTEGAREN OSTEAN ERREKA JAITSIERAKO
SARI BANAKETA EGINGO DA
22:00 // DJ MARATOI HERRIKOIA

URRIAK 18, BARIKUA

19:00 // TORTILLA TXAPELKETA
SARI BANAKETA 20:30ETAN EGINGO DA
22:00 // KONZERTUAK
TXOPET
PINPILINPUSSIES
BELAKO

URRIAK 19, ZAPATUA

MOZORRO ETA ETXERA EGUNA
MOZORROEN GAIA: EITB

12:00 // KALEJIRA INTXAURRETIK
TXOSNAGUNERA
14:00 // EKITALDIA ETA ARGAZKIA
14:30 // ELKARTASUN BAZKARIA
22:00 // KONZERTUAK
ROLANDO BRUNO
GOXUA'N SALSA

DURANGOKO TXOSNA BATZORDEA
JAIK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT

"Urteotan lokalean lanean jarraitu dugu"

MUSIKA The Kraven talde durangarrak 'Dawn of civilization' lana aurkeztuko du asteburuan Plateruenan; Orion Child eta Hiranya taldeek ere lan berriak aurkeztuko dituzte gualdi berean; hamalau urteko etenaldiaren ondoren, boskotea gogotsu bueltatu da



The Kraven.

Aritz Maldonado DURANGO Hamalau urteko etenaldiaren ondoren, The Kraven gogotsu bueltatu da entsegu lokaletik kanpoko bizitzara. Boskoteak hainbat kontzertu eman du 2022tik. *Dawn of civilization* lan

berria grabatu eta kaleratzeko astia ere izan dute. Orain zuzenean aurkezten dabilta, eta, kaleratu zutenetik, lehenengoz joko dute Durangon. ANBOTOk Asier Duñabeitia gitarristagaz berba egin du.

Zelako harrera izan du lanak?

Esango nuke metala entzuten dutenen artean harrera ona izan duela, eta gure ezagunen artean ere ondo jaso dute. Bost kantak osatzen dute lana, eta horietariko bat, *Play for losing*, zaharra

zen; berriro grabatu gura genuen, beste soinu berriago batez. Egungo soinu ekipoek ez dute zerikusirik lehengoekin, urteekin aukera gehiago izan dugu gure soinua garatzeko, eta musikari lez ere hobeak gara. Musika aldetik ez gara asko aldatu urteotan, metala egiten dugu batez ere, baina badaude nabardurak; kantak desberdinak dira euren artean, eta guk ez ditugu etiketak gustuko, baina metala dago oinarrian. Orain hauek grabatu ditugu, baina baditugu abesti berriak. Azken finean, hamalau urteotan ez gara geldirik egon, entseatz jarraitu dugu, lokalean lanean jarraitu dugu, eta talde modura ere hazi egin gara.

Zelan Aitor Ariñogaz grabatzen?

Ederto. Berrizko maketa lehia-keta irabazi genuenean, han grabatu genuen. Eta oso gustura geratu ginen emaitzagaz. Arantza hori genuen, bueltatzeko gogo. Itzuleratik kanta bi kaleratu ditugu, lokalean grabatuta. Baina hauekin beste modu batera egitea gura genuen, eta diru apur bat ere aurreztuta genuenez, Berrizera joatea erabaki genuen, Aitorrengana. Oso pozik gaude emaitzagaz. Berriz bertan grabatzea aldeko genuen, eta aurretik Aitorregaz lan egitea ere bai. Soinu aldetik bazekien zeren bila genbiltzan; soinu gordina bilatzen genuen, eta, beharbada, gaur egun soinu mota leunduago bat dago modan. Estudioan eta ohol-tzan soinu berdintsua bilatzen

dugu, gaur egun behintzat. Ez dugu baztertzen aurrerago beste zeozer bilatzea, baina orain hori gura genuen.

Lan berria lehenengoz plazaratuko duzue Durangon.

Bai, baina EPa kaleratu genuenetik, Lleidan eta Portugaleten ere jo dugu.

Beste talde durangar batez jotzeak berezi egingo du gualdia.

Orion Childeko kideak aspalditik ezagutzen ditugu eta oso ondo moldatu izan gara beti eurekin. Oso jende jatorra da. Eta Hiranyagaz jotzen dugulako ere pozik gaude. Azken finean, ondo dator jende berria ezagutzea, mundu honetan kontaktu gehiago edukitze aldera.

Eta zapatutik aurrera, zer asmo?

Abesti berriak ditugu errekamaran, eta berriak ere idazten gabiltza. Hiru-lau nahiko egitura-tuta ditugu. Puntu onean gaude la uste dut, eta konfiantza dugu, guran eta abestietan. Denbora batean ez dugu kontzertu askorik emango, familia kontuengaitik, baina ahal denean kanta berri horiek grabatzea gustatuko litzaike, eta horiek zuzenean jotzea.

"GAUR EGUN MODAN DAGO SOINU LEUNDUAGOA, BAINA GUK SOINU GORDINA BILATZEN GENUEN"

Melodiak protagonista 'Aesthesis' lanean, indarririk galdu barik

Metal festa borobila bizi izango da zapatuan Plateruenan, eta protagonistetariko asko durangarrak izateak asko lagunduko du, gainera. The Kravenen antzera, lan berria besapean duela igoko da oholtzara Orion Child taldea. *Aesthesis* lan berria aurkeztuko dute, hain zuzen ere. Taldeak hogeitau urte baino gehiagoko ibilbidea du. Azken sasoiaren egin duten moduan, lan honetan ere *power metal* iluna eta *death metal* melodikoa uzartu dituzte. Aurreko *Continuum Fracture* baino indartsuagoa dela dirudien arren, melodiekin protagonismo handia izaten jarraitzen dute. Musika aldetik ez ezik, lan berriak hitzetan ere islatzen du segida hori. Horrela, *Continuum Fracture* lanean aurkeztu zuten apokalipsi

nuklearraren osteko munduan fakzio desberdinen arteko gatazkak aletuko dituzte lan kontzeptual berri honetan; hirugarren lan batek borobilduko du etorkizunean trilogia. Metalzaleen artean sobera ezagunak diren Ronnie Romero eta Pedro J. Monge musikariek ere parte hartu dute diskoan.

Gabaldia amaitzeko, Hiranya taldea ere igoko da oholtzara. Boskote madrildarrak ere lan berria aurkeztuko du, *Hiranya*, eta *nu metal* eta *metalcore* ikutuak dituen *death metal* melodikoa jorratzen du. Hau ere talde beteteranoa da; izan ere, 2015etik dabil martxan. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira eta sarrerak 18 euroan (+ komisio gastuak) erosi daitezke.



Orion Child. IGOR CRUCHAGA

Maidier G. Etxegibekek 'Hayalgo' aurkeztuko du

DANTZA Maidier G. Etxegibel dantzari durangarrak 'Hayalgo' bere azken lana aurkeztuko du urriaren 12an, Gasteizko Artium museoan; Benedetta Leso dantzari italiarragaz batera ondu du proiektua, Dantzan Bilaka programaren barruan

Aritz Maldonado DURANGO

Dantzan Bilaka egitasmoan garatu diren proiektuak aurkeztuko dituzte datorren asteburuan. Bertan, Maidier G. Etxegibel dantzari durangarrak Benedetta Leso dantzari italiarragaz batera sortu duen *Hayalgo* aurkeztuko du. Gorputz biren arteko elkarrizketa da obra, eta pieza bakar bilakatu dira ikuskizunak aurrera egin ahala. "Lan kontzeptuala goa da, ez da ehuneko ehunean dantza hutsa; espazio publikoak ere lanaren parte dira eta gorputza ere erreminta bat da", azaldu du dantzari durangarrak.

Hayalgo izenburua berba joko dela azpimarratu du dantzariak, sorkuntzan lurralde-tasunak izan duen garrantzia nabarmentzeko: "*Hayalgok* – *zerbait dago*, euskaraz– pertsona biren artean pizten den txinparta adierazi gura du alde batetik; bestetik, Durangaldean dauden pagoei ere–*haya*, gaz-



Maidier G. Etxegibel eta Benedetta Leso.

telaniaz– egiten die erreferentzia".

Kokapenak ez ezik, Dantzan Bilaka egonaldian ondutako lanean saretzeak garrantzi handia izan duela nabarmendu gura izan du durangarrak. "Zazpi proiektu garatu dira egonaldi hauetan, eta bertan hainbat ar-

tista eta dantzarigaz batzeak asko laguntzen du; Angela Murrillo eta Isaak Erdoiza abadiñarrak osatzen duten batzorde artistiko batek gidatzen du proiektua, gainera", esan du Etxegibekek. Maidier Aldasororen ekarpena ere nabarmendu gura izan du.



'La voz eterna'.

'La voz eterna' hiru piezako lana aurkeztuko dute Arriolan

DANTZA Dantza garaikidea eta teknikoak uztartzen dituen emanaldia gaur izango da, 20:00etan, Arriola antzokian

A. M. ELORRIO

LaMov dantza konpainiak *La voz eterna* emanaldia egingo du gaur, hilak 4, Elorrioko Arriola antzokian. Hiru piezak osatzen dute lan osoa. Lehenengo piezako koreografia Victor Jimenezek sortu duen *La voz eterna* da. Jimenez LaMov dantza konpainiako zuzendaria da 2008tik, eta bertan "gudaren ahotsa" erakutsi gura du. Bigarrenean, ostera, dantzariek aurkakoa erakutsiko dute *Ciclos* piezan, "maitasunaren ahotsa"; "kontzientziaren ahotsak" borobilduko du obra, *Murmuriu* piezan.

"Dantzarien mugimendu eta bulkadek ikuslea laztandu eta hunkitzen dute; ahotsa, gorputza eta dantza elementu bakar batean elkartzen dira", azaldu dute konpainiakoek. Dantzazaleek dantza garaikidea eta teknikoak batzen dituen ikuskizun batez gozatu ahal izango dute bere osotasunean.

Mattia Furlan, Paula Rodriguez, Alain Rivero, Imanol Lopez, Maria Bosch, Ainhoa Fernandez, Daniel Romance, Fermin Lopez, Pilar Miguel eta Leyre Domingo dira dantzariak. Emanaldia 20:00etan hasiko da.



GAI LIBREAN

IUNE RUIZ TAGLE ARTE HISTORIALARIA

Oasi bat

Egunero saiatzen naiz nire ingurura begiratzen, gorputz honetan gertatzen dena azaltzen. Nor naizen, zerk egiten nauen. Ariketa nekeza. Saiatzen naiz, baina askotan amore ematen dut. Ez gaizki ulertu, batzuetan nik ere neure burua zaindu egin behar dut. Zaila egiten zait hemen eta orain bizi eta gauza askok ihes egiten didatela onartzea. Pentsatu baino inozoagoa naiz agian. Baina guztiok behar ditugu oasiak, edo aterpeak, edo goxo sentitzeko leku bat. Batzuetan babestuak sentitzeko beharra dugu, dena kontrolpean dugun erreflexu bat. Deskonexio txiki bat. Errealitateak mintzen duenean fantasiak kontsolatzen gaitu. Baina bada lerro bat, finegia, fantasia eta arduragabekeriaren artean. Arduragabekeria. Axolagabetasuna. Lasaitasuna. Lasai bizi da arduragabekeriak bizi dena. Arduragabekeriak lasaitasuna dakar, halabeharrez. Eta konturatu naiz, zein arriskutsua den batzuentzat lasaitasunez bizitzea. Finegia

"ARDURAGABEKERIA ORAIN ARTE MUSIKAGINTZAN IA EMAKUMERIK* EGON EZ DELA BAIETZATZEA DA"

da fantasia eta arduragabekeriaren arteko lerroa.

Arduragabekeria ez ikusiarena egitea da. Arduragabekeria zure pribilegio-posizioan babestea da. Arduragabekeria orain arte musikagintzan ia emakumerik* egon ez dela baieztatzea da. Arduragabekeria musikagintzan orain arte emakumerik egon ez dela baieztatzen jarraitzea da festibal handi zein herriko jaietako kartelak gizonezkoekin beteta egoten jarraitzen duten bitartean. Arduragabea da emaku-

meok musikagintzan dugun papera zalantzan jartzea kontzertu baten ostean isilpean gaztetxeak garbitzen ditugun bitartean. Komunikabide ezagun batean testigantza arduragabeak egitea eta zure pribilegio-posizioan ezkutatzea arduragabekeriak jokatzea da. Zure posizioari eusten jarraitzea eta musikaren munduan emakume eta identitate disidenteen testigantzak eta borrokak zalantzan jarri eta, are gehiago, ukatzen dituen adierazpenak egitea arduragabekeria handia da, Alex.

Eskerrak guk ere oasiak eraikitzen ditugun. Eta hauek ez daude arduragabekeriak beteta. Hauek kontzientziak, zaintzak eta kolektibitatez beteta daude.

* Testu honetan egiten dudana *emakume* hitzaren erabilera genero ikuspegi ez-bitar batean oinarrituta dago.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 4

ABADIÑO Erakusketa

'Natura ilustratzen' erakusketa (EHUko ilustrazio zientifikoko masterreko ikasleen lanak). *Urkiolako Parke Naturaleko parke txean, abenduaren 20ra bitartean.*

ATXONDO Bingo

Bingo umoretsua. Ondoren, txokolata.
Frontoian, 18:30ean.

ELORRIO Dantza

'La voz eterna' (La Mov konpainia).
Arriola, 20:00etan.

IURRETA Sanmiguelak

Pintxo txapelketa, 17:30ean, Etxegon. Tortilla txapelketa, arratsaldean, kaskoan (aurkezpena 20:00etan, Askondon). Rumbo a Tijuana mariatxiak, 21:30ean, Askondon. Bertso saioa: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Bartra, Xabat Gallettebeitia. Gai jartzailea: Ainhoa Urien, 22:30ean, Kepa Arroitauregi frontoian. Alkoholarekin arriskuak murrizteko aktibitateak, 22:30etik 01:30era. Zinez + Raimundo El Canastero, gauerdian, plazan. Ondoren, Lumatzak DJa.
lurretan.

ZAPATUA 5

ABADIÑO Berbaldia

'Zero waste hastapena (etxeetan hondakinak murriztea)'.
Errota kultur etxean, 11:00etan.

DURANGO Antzerkia

'75 puñaladas' (Txintxaun kolektiboa).
San Agustin kultur gunean, 19:00etan.

DURANGO Kontzertua

Orion Child + Hiranya + The Kraven.
Plateruena kultur aterpean, 20:00etan.

DURANGO Azoka

XIV. Azoka Ekologikoa.
Andra Marian, goizean.

IURRETA Sanmiguelak

Mozorro Eguna: Octoberfest Aburrecalles txaranga, 12:30ean. Paella txapelketa, 14:30ean. Gero, bazkari herrikoa, Askondon. Aburrecalles txaranga, 18:30ean. Luhartz, 21:00etan, plazan. Ondoren, Xaukena Xauk DJa.
lurretan.

IURRETA Irteera

Bizikleta irteera Kalbariora, lurreta Txirriindulari Elkarteak antolatuta.
lurreta, 09:00etan.

ZALDIBAR Jaialdia

VIII. Aniztasuna Eguna. Herriko txalapartariak, abesbatza, dantzariak eta abeslariak. Ondoren, munduko janariak.
Udaletxe plaza, 13:00etan.

ZORNOTZA Euskal jaia

Diana: Erraldoi handi eta txikiak, gaiteroak eta txistulariak, 11:30ean. Txupina, bertsoak eta agurra, 12:15ean, Herriko Plazan. Ikastetxeak dantzan eta kantuz, 12:30ean. Musika, kantua eta dantza, 13:00etan, herriko kaleetan. Gaztedi Barri txaranga, 13:00etan, Lopena aurrean. Zornotzako Musika Banda, 14:00etan, Euskal Herria Plazan, Kalbarion eta Herriko Plazan. Txalaparta eta herri bazkaria, 15:00etan, Zelaieta Parkean. Bingo musikatua (DJ Jonkass), 17:00etan. Baserriko kirol parkea (Kulki), 16:30etik 18:30era. Kaleko musika: Kittu taldea, 19:30ean, Luis Urrengoetxean. Erromeria: Zutik taldea, 22:00etan, Zelaieta parkean.
Zornotzan.

DOMEKA 6

ABADIÑO Bisita Gidatua

'Urkiolako sekretuak errege-bidetik' bisita gidatua. Europako Ondare Jardunaldien barruan.
Urkiolan (Bizkarra jatetxe aparkalekuan), 10:30ean.

ABADIÑO Kontzertua

Tatxers taldea.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.



BOROBIL TEATROA

DURANGO Antzerkia

Borobil Teatro konpainiak hamarkada bete du aurtan, eta, urteurren borobil hori ospatzeko, familia osoari eskainitako *Ali Baba eta 40 lapurrak* obra arrakastatsua berreskuratu du. Durangon taularatuko dute, asteburuan.
Urriak 6, domeka, San Agustin kultur gunean, 18:00etan.

BERRIZ Bisita Gidatua

'Arkitekturaren hari muturrak: Berrizko San Joan Ebanjelariaren Eliza eta arte-fluxua Durangaldean'. Europako Ondare Jardunaldien barruan.
Elizondo plaza, 11:00etan.

ELORRIO Errebonbiloak

Errebonbiloen kalejira, 05:00etan. Nesken gomazko paletako zirkuitua, 11:00etan, kiroldegiko Hilario Azkarate frontoian. Basilikako Koruaren emanaldia mezatan, 11:30ean. Jaizale Durangaldeko Txistularien kontzertua, 13:00etan, plazan. Alardea eta dantzak, 17:00etan.
Elorri.

GARAI Ibilaldia

Ibilaldia herri inguruko basoetatik.
Plazan, 10:30ean.

IURRETA Sanmiguelak

XXIV Nekazaritza eta Artisautza Azoka, 10:00etatik 14:00etara, Olaburun. Dantzari eta agintarien kalejira, 11:00etan, Montoitik plazara. lurretako dantzariak, 12:30ean. Ondoren igel txapelketa. Dantza ikuskizuna: lurretako dantzariak eta talde gonbidatua, 18:00etan. Ondoren, jaietako errifren zozketa. Herri afaria, 20:00etan. Erromeria Lorratz taldeagaz, 20:30ean. Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz, 22:00etan.
Aita San Migel plaza.

IURRETA Irteera

Bizikleta irteera Mungia, lurreta Txirriindulari Elkarteak antolatuta.
lurreta, 09:00etan.

ZORNOTZA Irteera

VI. Derandain Mendi Martxa Solidarioa. Izen ematea www.derandain.org atarian, derandain@derandain.org helbide elektronikoa edo irteera puntuan, ordu erdi lehenago. *Hilekoaren osasuna ez da osasunarena soilik* erakusketa ere prestatu dute, Sahara hegoaldeko herrialdeetako neska eta nerabeei hilekoak eta higiene arazoak eragindako arazoak azaleratzeko.
Yalens Taverne (Jauregizahar 5), 10:00etan.

MARTITZENA 8

ELORRIO Berbaldia

'Elorrio bitarteko estrategiko bezala' (Hizlaria: Amaia Basterretxea). Europako Ondare Jardunaldiak.
Iturri kultur etxean, 18:30ean.

BARIKUA 11

IURRETA Sanmiguelak

Erromeria Intxausti eta Larrañaga trikitalariekin.
Aita San Migel plaza, 19:00etan.

DURANGO Lehiaketa

Durango Uria XXIV. Pintura Lehiaketa. Durangaldeko Artista Elkarteak antolatuta.

ZINEMA

ABADIÑO

ERROTA KULTUR ETXEA

Bilboko Film Sozialak, zinema ikusezinaren jaialdia.
barikua 4: 19:00

BERRIZ

KULTUR ETXEA

La virgen roja
domeka 6: 19:00

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Joker: Folie a deux
barikua 4: 17:45, 20:30.
zapateria 5: 16:45, 18:00, 21:00.
domeka 6: 17:15, 19:30.
astelehena 7: 17:30, 20:15
martitena 8: 17:30, 20:15
eguzatena 9: 19:00

Los destellos

barikua 4: 18:00, 20:30.
zapateria 5: 19:30, 21:30.
domeka 6: 20:00.
astelehena 7: 18:00, 20:15
martitena 8: 18:00, 20:15
eguzatena 9: 19:00

Crossing

barikua 4: 18:00, 20:30.
zapateria 5: 19:30, 21:30.
domeka 6: 20:00.
astelehena 7: 18:00, 20:15.
martitena 8: 18:00, 20:15.

Robot salvaje

domeka 6: 17:00

Don Carlo

eguzatena 2: 19:00

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Bilboko Film Sozialak, zinema ikusezinaren jaialdia.
zapateria 5: 20:00.
domeka 6: 20:00.
astelehena 7: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

EI 47

barikua 4: 20:00.
zapateria 5: 20:00.
domeka 6: 20:00.
astelehena 7: 20:15

Zac & Wovo: La leyende de los Lendarys

zapateria 5: 17:00.
domeka 6: 17:00.

Traineras: pasión por el remo

martitena 8: 20:15



VISUAL LIVES ONGU

Zubiondon hasi eta amaituko da Aramotz mendi lasterketa

MENDI LASTERKETA Domekan Aramotz mendi lasterketaren 12. aldia egingo dute Zornotzan. Nobedade bat da helmuga Juaregibarriatik Zubiondo parkera tokialdatu dutela. Aurten, lasterketa bakarra egingo dute, orain arte zeuden bien tarteko bat

Joseba Derteano ZORNOTZA

Zornotzako Aramotz mendi lasterketa nobedadeekin dator. Domekako 12. aldia ez da, ohikoa izan den moduan, Jauregibarrian hasi eta amaituko. Erdigunera go ekarri dute, Zubiondo parkera. Handik irtengo dira korrikalariak, 10:00etan, eta hantxe bertan helmugaratuko dira. "Herrigunera apur bat gehiago hurbiltzeko eta giro gehiago sortzeko hartu dugu erabakia", azaldu du ekimeneko antolatzailea den Xabi Etxabek.

22 km-ko ibilbidea

Beste nobedade bat ibilbidean dago. Aramotz lasterketaren ibilbide tradizionala 28 kilometrokoa izan da, Leunganeraino zihoana. Baina pandemia sasoiari, osasun neurrietara egokitzeko, 17 km-ko laburragoa antolatatu zuten eta korrikalariak banan-banan irten ziren. "Oso arrakatsua" izan zen, eta, normaltasunera bueltan, ibilbide labu-



lazko lasterketako irudi bat. ARAMOTZ

rrari ere eutsi zioten, ohiko luzeagaz batera. Harrezkero, arrazoi bategatik edo besteagaitik, "geroago eta jende gutxiagok" eman du izena luzean, eta, beraz, aurten maratoi erdiaren aldeko apustua egitea erabaki dute. "Gaur egun modan

dagoen distantzia da", argitu du Etxabek.

Ibilbide berrian ez dira Leunganeraino helduko; lehenago hartuko dute buelta. Ibilbideko tontorrak Pagozelai, Urtemondo eta Belatxikieta izango direla azaldu dute antolatzaileek.



Villarroel eta Aranburu, Mañariko sari banaketan. MAÑARITIK ATXETARA

Villarroel txapeldun, Aranburu lider

Urkiola Kopako lehenengo aldia amaitzean dago. Kopa osatzen duten hiru lasterketatik azkenekoa Aramotz mendi lasterketa izango da eta oraindino zeozer jokoan dutenak azkenengo puntuak urratzen ahalginduko dira.

Emakumeetan, erabakita dago txapelduna: June Villarroel. Aurreko proba biak irabazi egin ditu —Sorginen Lasterketa eta Mañaritik Atxetara— eta ez dago harrapatuko duenik. Lasterketako irabazleak 200 puntu batzen ditu eta Villarroelek 220 puntuko aldea ateratzen dio bigarrenari. Baina ez da sari banaketara bakarrik agertuta konformatuko; hiru probak irabazita jantzi gurako du txapela eta irteera puntuan izango da.

Villarroelen atzetik emozioa da nagusi. Itsasne Urkiaga eta Leire Uribe 180na puntugaz berdinduta daude bigarren eta hirugarren tokian. Gainera, orpo orpo dituzte beste hainbat korrikalari: Gartzte Mentxaka 10 puntura, eta Ainara Arkarazo 20 puntura, besteak beste.

Gizonetan dena airean dago, txapelduna ere bai. Mañaritik Atxetara 22 kilometroko proba irabazi zuen Irazu Aranburu mallabitarra da liderra, 320 puntugaz; Mustafa Mahfoud 50 puntura du, eta Ander Jauregi 110 puntura, bigarren eta hirugarren tokietan, hurrenez hurren. Euren atzetik dauden hainbat korrikalari ere badute aukera podiumera igotzeko. Beraz, hainbat korrikalariaren arteko borroka estua espero da.

Etxekoak faboritoen artean Anboto Kilometro Bertikalean

KILOMETRO BERTIKALA Oihana Azkorbebeitiak eta Aitor Ajuriak sasoiari daudela erakutsi dute azkenaldian

J.D. ATXONDO

Anboto Kilometro Bertikalak 15. aldia egingo du zapatu honetan. Erronka urterokoa da: 15:00etan Arrazolatik irten eta 3,8 kilometrotan zehar 1.092 metroko desnibela gainditu behar dute korrikalariak, Anboto mendiko tontorrera heldu arte.

Iazko irabazleek berriro irabaztea dute helburu: Lide Urrestarazu ordiziarrak emakumeetan eta Iñigo Alzola arrasatearrak gizonetan. Parez pare izango dituzten aurkariren artean, eskualeko bi nabarmendu dai-

tezke: Oihana Azkorbebeitia abadiñarra eta Aitor Ajuria otxandiarra. Bata zein bestea sasoi onean daude; Azkorbebeitiak Mañaritik Atxetara proba irabazi du oraintsu, eta Ajuriak Sorginen Lasterketa. Gainera, biak hamar onenen artean sailkatu ziren joan zen asteburuko Gorbeia Suzien lasterketan. Emaizta bikaina da kontuan hartuta Sky World Series munduko koparen barruko proba zela.

Hauekin batera, badira ahaztu ezin daitezkeen beste izen

batzuk ere. Esaterako, Guillermo Ramos gizonetan, eta Onditz Iturbe eta Garazi Abasolo emakumeetan.

LIDE URRESTARAZU ETA IÑIGO ALZOLA BERRIRO IRABAZTEN AHALEGINDUKO DIRA

Saria errekorarentzat

Irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro eta hiurgarrenak 100 euro. 500 euroko sari berezi bat ere badago errekorra apurtzen duenarentzat. Gaur egun, errekorrak Marco de Gasperiren (37:14) eta Oihana Azkorbebeitiaren (45:59) eskuetan daude.



Lide Urrestarazu iazko Anboto Kilometro Bertikalean.

Espezialisten abiapuntu eta zaleen gozagarri

MENDI DUATLOIA Zer bilatu huraxe aurkituko du zapatuan Durangoko Mendi Duatloira doanak. Euskal Herriko zirkuituko lehenengo proba da espezialistentzat; zaleek ibilbide errazago batean parte hartzeko aukera izango dute; umeen probak ere badaude

Joseba Derteano DURANGO

Mendia, korrika eta bizikleta. Hiru osagai horiek bakar batean uztartuko ditu Mugarra Triatloi Taldeak, zapaturako antolatutako duen Durangoko Mendi Duatloiren bigarren aldia. Modalitateko espezialistak lehia gosez etorriko dira, Euskal Herriko zirkuituari hasiera emango dion proba delako.

Lasterketa 16:00etan hasiko da, Tabira parkean. Osatu beharreko distantziak hauek dira: 7 km korrika eta 16 km bizikletan. Tabirako eta Izurtzako antena inguruetatik ibiliko dira. Ibilbidean aldaketa txikiak daude iazko aldiagaz alderatuta. Esaterako, bai korrika eta bai bizikletan, asfalto zati bat mendi bide batez ordezkatu dute. Iazkoa baino ibilbide laburtuagoa da, baina baita erakargarriagoa ere.

MugarraTT-ko hainbat duatloiarik parte hartuko dute lasterketan. Iazko aldia MugarraTT-ko



Iazko proba Paul Bereziartuak irabazi eta Euskal Herriko txapela jantzi zuen.

Paul Bereziartuak irabazi zuen gizonetan, eta Enara Oronozek emakumeetan.

Euskal Herriko mendi duatloia zirkuitua sei probek osatzen dute. Durangokoaren ondoren, honako hauek faltako dira: Kan-

pezu, urriaren 12an; Amasa, urriaren 19an; Aia, urriaren 26an; Ibarra, azaroaren 16an; eta Aduna, azaroaren 23an. Euskal Herriko txapelak Aian banatuko dituzte. Iaz Durangoko mendi duatloian erabaki ziren.

Lasterketa herrikoa

Dena ez da profesionalen lehia izango. Gustuko duten denek mendi duatloia gozatzeko aukera izango dute 12:30ean hasiko den lasterketa herrikoia. Distantzia laburragoak eta eramangarriagoak ditu: 1,5 km korrika, 5,5 km bizikletan eta kilometro bat korrika. "Durangar guztiak parte hartzea gonbidatuta zaudete. Oso giro herrikoa egoten da eta distantziak egingarriak dira", adierazi zuen MugarraTT-ko Paul Bereziartuak ekimenaren aurkezpenean.

Zaletasuna sustatzeko ere baliatuko du zapatuko hitzordua. 11:00etatik aurrera umeen duatloiak egingo dituzte, 7tik 14 urtera arteko gaztetxoei zuzenduta. Adin bakoitzak bere distantzia izango du.

Lasterketa bi hauetarako izen ematea egunean bertan egin daiteke.

Azkenik, Bereziartuak eskerak eman zizkien erakunde laguntzaileei eta babesleei; baita herriko dendei ere, helmugako anoa guneko elikagaiak eta zozketetarako materiala emateagaitik. Horrez gainera, boluntarioen lana ere azpimarratu zuen: "Ekimen honen atzean lan boluntario handia dago eta denei euren lana eskertzen diegu". Durangoko Udaleko Iker Txertudik antolatzaileen lana goraipatu zuen eta herritarrei bertaratzeko gonbita egin zien.

Pilota jaialdi erakargarria Durangoko jaien barruan

PILOTA Aingeru Bernaola eta Josu Eguren Mikel Goñiren eta Oinatz Bengoetxearen bizkarzain

J.D. PILOTA

Durango Pelotazale Klubak pilota jaialdi erakargarria antolatu du Durangoko San Fausto jaien barruan. Eskualdeko pilotari gazte bi aurrelari mitikoekin bizkarzain arituko dira. Pelota Fest deitu duten jaialdia urriaren 18ko barikuan izango da, 19:00etan, Ezkurdi pilotalekuan.

Binakako partidu nagusian, Aingeru Bernaola mañariarrak eta Mikel Goñik bikotea osatuko dute. Promesa gaztea Oronozko beteranoaren bizkarzain arituko da. Josu Eguren atxondar gazteak ere ez du edozelako aurrelaria izango: Oinatz Bengoetxea. Leitzarrak buruz buruko txapel bi, eta lau eta erdiko eta binakako bana irabazi zituen profesionaletan. Partidu honen aurretik, nesken pilota partidu bat jokatu da.

Sarrerak eguaztenero eskuratu daitezke (10 euro), Ezkurdi frontoian, 16:00etatik 21:00etara.



JOKALDIA

ALFONSO ARROIO MONASTERIO KIROL KAZETARIA

Mundiala

Lerroburuak ezin hobeto adierazten du Zuricheko munduko txapelketan gertutakoa. Kolosala izan zen Tadej Pogacarrek egindako balentria. Eddy Merckx berak ere aitortu zuen bere gainetik dagoela esloveniarrak, harri eta zur gelditu omen zen txapelketan handia.

Aurtengo denboraldia munduko txapelketen berriaren sasoia izan da. Erakustaldiz erakustaldi ibili da eta nagusitasun zanpatzailea erakutsi du; asekaiteza da 26 urteko ziklista. Pogacarrek ematen dituen datuetara inor gutxi hurbiltzen da, norbait gerturatzekotan Jonas Vingegaard izango da. Ortzadar maillotaren uzabak 55 lasterketa egun egin ditu eta 23 garaipen lortu. Emaitzarik txarrenak Milano-San Remoko hirugarren lekua eta Montrealgo Sari Nagusiko zazpigarren tokia dira. Atera kontuak, 1974an Merckxek eta 1987an Rocheke erdietsitakoa berdindu du Pogacarrek; urte berean Giroa, Tourra eta munduko txapelketa irabaztea. Ikusizunaren sinonimoa da, berdin zaio noiz eta non jo

"AURTENGOA MUNDUKO TXAPELDUN BERRIAREN SASOIA IZAN DA; ERAKUSTALDIZ ERAKUSTALDI IBILI DA"

"MERCKXEK ETA ROCHEK LORTUTAKOA BERTINDU DU, URTE BEREAN GIROA, TOURRA ETA MUNDUKO TXAPELKETA IRABAZITA"

erasoa. Sarri, bapatean otutzen zaizkio ateraldi horiek. Askok esango dute aspergarri bihurtzen dituela lasterketak, alde aurretik gidoia idatzita dagoela. Ez zaie arrazorik falta, arrisku hori hor dagoelako, baina zer esango dizuet, goza dezagun urrezko aroa ordezkatzeko duen ziklista honekin. Orain arte Merckxen erakustaldiak entzun ditugun bezala, hogeitau urte barru gazteenek Pogacarrenak entzungo dituzte.

Munduko txapelketen berriari gorazarre egin ostean, ezin albo batera utzi, ziklista batek 2022an egindako balentria handiagoa. Orduan, hiru itzuli handiak (Tourra, Giroa eta Vuelta), Liejako monumentua eta munduko txapelketa irabazi zituen. Emakume bat izan zen, Longo eta Vosekin batera olinpoan sartu den txirrindularia: Annemiek van Vleuten. Iaz utzi zuen profesionaletako ibilbidea eta duela bi urte egin zuena zinez kolosala izan zen, mundiala. Herbeheretarra eta esloveniarrak, eman diezaizkion bakoitzari berea.

KOMIKI TIRA

UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

09:00-09:00

URRIAK 4

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

URRIAK 5

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

URRIAK 6

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

URRIAK 7

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

URRIAK 8

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

URRIAK 9

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

URRIAK 10

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

GOZATU GOZOTEGIA



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta gura duzun testua.
- Zatoz Anbotora edo deitu 946 232 523 telefonora.

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.



Paule


Urriaren 7an, 16 urte. Zorionak, **Paule!** 16 urte egingo dituzu astelehenean. Zorionak aldeztu aurretik eta egun zoragarria pasa dezazula! Musu potolo bat aitaxo, amaxo, Maialen eta Nahiaren partez.



ABADIÑO

Jennifer Marchal

Urriaren 4an **Jennifer Marchalek** urteak egiten ditu. Aurten, gainera, zeuk daukazu zure barnean oparia. Zu ezagutzeko desiatzen gaude, Elene!



BERRIZ

Mikel

Irailaren 29an, 32 urte. Zorionak Harriketar **Mikeli**, bere 32. urtegunien. Zu be Jesusen adinera ailegetan zabiz; beraz, datorren urtien arantzako koroiaikin, gurutzeratzeko arriskue daukozu. Argi ibili, eder hori. Baia trankillo egon, zure erizainek eta kokotxituek askatuko zaitue. 32 mosu potolo zuk nahi dozun tokixen.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Errezitala/ Solasaldia

**Gotzon Barandiaran
& Harkaitz Cano**



Azaroaren Sean, martitzena, 19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-deidan. *Doan



"RUMBO TIJUANA"
Mariatxiak askondon.
Ostiralean, 21:30etan.

Iurreta
Liburudenda

INMOBILIARIAK



C.E.E= E 260.000 €

ERDIALDEAN 123 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela handia. Ganbara eta garajea. Txokoa eta solariuma.




C.E.E= E 210.000 €

IBAIZABAL APARTAMENTUA. Sukaldea eta egongela handia. Trastelekua eta garajea. bizitzen sartzeko moduan.




C.E.E=F 198.000 €

MIKELDI 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E: E 198.000 €

ABADINO 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Ganbara eta garajea. Hegoaldea. Ikuspegi politak. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E: F 170.000 €

IURRETA 70 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. Hegoaldea.



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



C.E.E: E. 160.000 €

DURANGO Goienkale: 66,70 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. Mendebaldea. Erdiguenan kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak. Egoera onean. Ganbara.



C.E.E: BIDEAN. 178.000 €

DURANGO Gasteiz bidea: 120 m². Egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialde-mendebaldea). Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Egoera onean.



C.E.E= E. 190.000 €

DURANGO Lariz Dorrea: 105 m². Egongela, sukaldea, jangela, 5 logela, komuna eta despentsa. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Leku onean kokatua (Santa Ana). Berrikuntzak behar ditu. 2 APARTAMENTU EGITEKO AUKEKAREKIN.



C.E.E: E. 310.000 €

DURANGO Frantzisko Ibarra: 93,77 m². 2.000. urtean eraikia. Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Zonalde berdez inguratuta, herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garaje itxia.



C.E.E: F. 190.000 €

MATIENA Perulanda: 80 m²-ko baserria. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendebaldea). Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzueguneak. 6 m²-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa, ez du berrikuntzarik behar.



BERRIAK DURANGO

Frantzisko Ibarra: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garaje itxia. Igogailua. **310.000 € / E.E.Z=E**

DURANGO

Anbrosio Meabe: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta igogailua. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=Bidean**

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000 / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea, balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Komentu kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 Komun. Balkoia, ganbara, igogailua eta garajea. **LEHEN 379.000 / ORAIN 369.000 E.E.Z=B**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzoria. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

GARAIA

Momoiito auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeo etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

Elixoste: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 145.000 € / ORAIN 130.000 / E.E.Z=F**

Zelaieta auzoa: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000 / ORAIN 280.000 E.E.Z=G**



LAU-HORTZA

SERGIO MURILLO
CORZO

Aniztasuna plazako alkarbizitzara

Hainbat agerkarik etorkin kopuruaren aipamena egin dau azken hilean, gai barria izango balitz lez... eta ez, gure gizartea mendeetan zehar beste herri eta kulturekaz hartu-emonetan egon izan da. Azken datuetara joz gero, Durangaldean zein Euskadin, mende honetan urtez urte izan dogu *euskararen herrietatik* kanpo jaiotako biztanleriaren laurden bat baino gehixeago, %27 hain zuzen ere. Etorkin kopurua, beraz, ez da nabarmen-tzekoa. Kopuru horren baitan erabakiorra da ezaugarrien aldaketa, gero eta urrunagotik datozelako, zentzu fisikoan zein kultura eta erlijiosoa. Hor bai, hor daukagu erronka. Mende hasieran Durangaldean zail egoan Europa ez dan leku baten jaiotako pertsonaren bat topatzea, %0,58 ziran... Gaur egun, barriz, %6,21 dira. Datu eta analisi hotzetatik haratago, maila pertsonetik begiratuta, aniztasun gitxi dakusat lagunarteetan, dala koadrillan, dala ingurukoan seme-alaben parkeko lagunaren artean. Eskolan bai, eskolan badagoz. Lantokian ere badaukadaz lankide anitzagoak. Aldiz, horreek ez dira oso-osoa aukeratutako giza-kontestuak, erakundetutako esparruak baitira. Benetazko alkar-bizitza ez da hor jokatzeko, gure auzoetan eta gure plazetan baino; esparru formaletatik kanpo. Horregatik, gure plazak jai giroaz betetzen doguzan asteotan -Jurretako eta Durangoko jaietan- egin daigun ahalegintxoan aniztasuna alkarbizitza bihurtzen eta gure Herri(eta)ko adierazpen behinenetan islatzen.

AKUILUA

"Argazkiak zeozer esan behar duela uste dut"

ALAZNE URIEN ZUBILLAGA MARKETING IRAKASLEA

Alazne Urienek (Iurreta, 1993) irabazi du ANBOTOren udako aurtengo argazki lehiaketa, Durangaldetik kanpoko kategorian. 'Teknologiatik at' argazkiagaz lortu du

Aitziber Basauri IURRETA

Kiotoko (Japonia) tranbian ateratako argazki batek jaso du ANBOTOren saria. Irudia esanguratsua zela eta, momentu hura argazki batean jaso zuen Alazne Urienek. Berak jakin barik aurkeztu zuen argazkia lehiaketara bere bikotekideak.

Zein istorio dago argazkiaren atzean?

Kiotoko tranbian, banbu baso bat ikustera gindoazela ateratako argazkia da. Komikia irakurtzen zebilen neskato hark harritu egin ninduen. Irudi esanguratsua iruditu zitzaidan. Teknologiarene inguruan murgilduta gaude une oro. Bilboko metroan ere ikusi daiteke, Japonian gertatzen den antzera. Gainera, han, bai metroan bai tranbian, isilik egotera ohituta daude, eta gehienek mugikorra darabilte eskuetan. Geroago eta teknologia gehiago dugu inguruan, eta ematen du ez garela ohartzeko. Neskato hura ikusita, pentsatu nuen: Badago esperantza!

Aro digitalean murgilduta posible da teknologiatik at egotea?

Ez dut uste. Hortxe dugu erronka. Teknologia erabili egin behar dela uste dut, baina buruagaz, zentzuz. Erraza da esatea, baina nik ere asko erabiltzen dut.



'Teknologiatik at'. ALAZNE URIEN

Zein da bidali gura duzun mezua?

Egungo errealitatea islatu gura izan dut, eta azalerazi teknologia hortxe dugun arren buruagaz erabiltzen jakin behar dugula. Teknologian oso aurreratuta dagoen herrialdea da Japonia.

Hala da. Askok gustatu zitzaidan.

Teknologia edo modernitate handiko herrialdea da, baina tradizio handia duena. Askok gustatu zitzaidan biak zelak uztartzen diren. Askok harritu ninduen.

Noiz hasi zinen argazkigintzan?

Aitarengandik datorkit zaletasuna, betidanik gustatu izan zaio argazkigintza; oso zalea da. Canon kamera bat oparitu zidan, orain hamar bat urte. Baina, tira, Kiotokoa mugikorreragaz atera nuen, horrelakoe-tarako oso lagungarria da mugikorra. Baina, aukeran kamera hobeto.

Zer da zuretzat argazkigintza?

Mezuak bidaltzeko beste modu bat. Argazkia ikusten duena hausnarketa bat egitera eraman gura dut. Horretan ahalegintzen naiz behintzat. Pertsonak, momentu bitxiak... erretratatzeko gustatzen zait, batez ere. Eta atzean mezu bat badu, askoz ere hobeto.

Lehenengoz aurkeztu zara lehiaketa batera?

Bai. Inondik inora ere ez nuen espero irabaztea, eta oso pozik hartu nuen. Aurrerantzean gehiago animatuko naiz igual. Zer behar du argazki on batek? Mezu bat. Argazkiak zeozer esan behar duela uste dut. Zuri-beltzeko argazkiak asko gustatzen zaizkit.

Kamera beti aldean daramaten horietakoa zara?

Bai. Canon kamera eta mugikorra. Baina aitortu behar dut leku batzuetan ez naizela kamera ateratzera ausartzen.

Zuretzat argazkigintza zaletasuna baino gehiago izango da inoiz?

Baliteke. Zergaitik ez? Aukera bat da. Gaur egun baliabideak ditugu geure kabuz ikasteko.

